

BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXE PUBLIKOEN ANTOLAMENDUA ARAUTZEKO ETA 2026- 2027 ETA 2027-2028 IKASTURTEETARAKO HOBEEKUNTZA-ESTRATEGIA BIDERATZEKO EBAZPENA

HEZKUNTZA SAILA

HEZKUNTZA POLITIKETAKO SAILBURUORDEAREN EBAZPENA

BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXE PUBLIKOEN ANTOLAMENDUA ARAUTZEKO ETA 2026-2027 ETA 2027- 2028 IKASTURTEETARAKO HOBEEKUNTZA-ESTRATEGIA BIDERATZEKO EBAZPENA

Hezkuntza Saila
Hezkuntza Politiketako sailburuordearen ebazpena

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2026

6

8

10

12

13

13

14

15

17

18

20

23

24

26

29

29

31

32

32

36

36

38

39

40

41

42

44

45

46

48

50

51

52

53

54

55

56

56

57

60

62

63

Sarrera. Ebazpenaren esparrua eta lan-mugartea (2026-2028 ikasturteak)

①

Ebazpen honek **2026-2027 eta 2027-2028** ikasturteetarako ikastetxe publikoen antolaketa-, plangintza- eta hobekuntza-esparrua ezartzen du. Haren **helburua** dalan iraukor bat bideratzea, zeinak ongizatea eta bizikidetza sustatzearekin batera berdintasun-arrakalak murriztuko baititu, ikastetxe bakoitzaren autonomiaren eta erantzukizunaren esparruan hobekuntzarako ebaluaziotik (barne- eta kanpo-ebidentzien erabilera) eta funtsezko konpetentzien emaitzak hobetzetik (batez ere irakurmena, matematikak eta zientziak) abiatuta.

Esparru hau Euskal Eskola Publikoaren Transformaziorako I. Plan Estrategikoan (2025-2028) oinarrituta, **hobekuntza-ziklo sistematikoa** batean zehazten da: ebidentziak aztertu (barnekoak eta kanpokoak), lehenetsi, jarduerak planifikatu, jarraipena egin eta beharrezko doikuntzak txertatu. Ikastetxe bakoitzak ziklo hori plangintza-dokumentuetan islatuko du, bereziki Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektuan (IHP), Ikastetxearen Urteko Planean (IUP) eta Ikastetxearen Urteko Memorian (IUM).

Horrekin batera, Hezkuntza-emaitzak hobetzeko hobekuntza-estrategia integralak (2025-2028) **esparru pedagogiko komuna** osatzen du. Haren funtzioa ikastetxeen plangintza eta irakasleen jarduna lerrokatzea da, sistema, ikastetxe eta ikasgelaren arteko koherentzia bermatuz eta ekimenen aplikazio zatikatua saihestuz.

Haren hedapenak eskatzen du ikastetxe bakoitzak, hobekuntzarako ebaluazioa oinarri hartuta, beharrezkoak diren antolaketa- eta pedagogia-erabakiak **identifikatzea eta lehenestea**; erabaki horiek funtsezko konpetentzien hobekuntzara bideratzea; eta erabaki horiei ongizatean, bizikidetzan eta hezkidetzan oinarrituta eustea, helburu errealistekin, jarraipenarekin eta ebaluazioarekin.

Biurtekoan zehar, ikastetxe bakoitzaren plangintza lehentasun argiekin eta jarduera bideragarriekin antolatuko da, eta arduradunak, baliabideak, egutegia eta adierazle errazak zehaztuko dira.

Jarraipena aldian-aldian partekatuko da ikastetxearen koordinazio-organoekin eta Eskola Kontseiluari emango zaio horren berri. Ikastetxearen Urteko Memoriak (IUM) betetze-mailaren balorazioa eta hurrengo ikasturterako doikuntzak jasoko ditu.

Prozesu hau Hezkuntza Ikuskaritzak lagundu eta gainbegiratu du, eta Ikasiz Hobetzeko Berrikuntza Zentroaren (aurrerantzean HeziLab) eta Inklusioa Bizikidetzan eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroaren (aurrerantzean BiziLab) aholkularitzaz eta prestakuntzaz probestuko da, ikasgelan eragina duten hobekuntza-prozesu koherenteak sustatzeko helburuarekin.

Esparruaren
garapena
(2026-2028):
hobekuntzarako
jarduera-ildoak
eta ikastetxeko
plangintzan
sartzea

②

Jarraian, ikastetxeek 2026-2027 eta 2027-2028 ikasturteetako plangintzetan txertatuko dituzten **jarduera-ildoak** zehazten dira, ebidentzien azterketa oinarri hartuta eta ikaskuntzetan nahiz ekitatean duten eraginera bideratuta.

Lan hori hobekuntza-helburu kopuru mugatu batean eta aurreikusitako ekintzetan (jarduerak, arduradunak, baliabideak, egutegia eta adierazleak) zehaztuko da; ekintza horiek ikasturte bakoitzeko IUPean jasoko dira eta IUMen ebaluatuko dira, jarraitutasuna eta doikuntza bermatzeko.

Esku-hartze koherentea eta iraunkorra ziurtatzeko, ikastetxeek erabaki- eta praktika-mailen arabera (klastroa, batzorde pedagogikoak, irakasle-taldeak eta ikasgela) antolatuko dituzte jarduera horiek, adostutako neurriak aldaketa eraginkor bihur daitezen antolaketan, metodologian eta ikasleentzako laguntzan.

- Makro mailan, arau-esparruak definitzen dira ([abenduaren 21eko Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko 17/2023 Legea](#), [curriculum-dekretuak](#) eta [ekainaren 18ko 78/2024 Dekretua](#), Hezkuntza-sistema inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuna ematen diona), bai eta Hezkuntza Sailak bultzatutako estrategia instituzionalak eta egiturazko programak ere. Maila hau estu lotuta dago **10. Ardatzarekin** (Ebaluazioaren eta berrikuntzaren kultura), baita **6. Ardatzean** jasotako ekitatearekin eta inklusioarekin ere.

- **Meso** mailan, ikastetxeek testuinguruaren arabera zabaltzen dituzte orientabide horiek, zuzendaritza-taldeek gidatuta eta Berrikuntza Arduradunek (BeA) eta ongizatearen eta babesaren koordinatzaileek (OBK) lagunduta. Eremuhonetan, finkatu egitendira **4. Ardatzaren** (Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesua), **5. Ardatzaren** (Irakasleak eraldaketa-prozesuaren ardatz gisa) eta **7. Ardatzaren** (Bizikidetzaz, hezkidetzaz eta ongizate sozioemotionala) ildoak, plangintza estrategikoaren, antolamenduaren hobekuntzaren eta tutoretza-ekintzaren bidez.
- **Mikro** mailan, ikasgelan, irakasle bakoitzak esparru horiek aplikatzen ditu metodologia aktiboez, ebaluazio hezitzaileaz eta ikaskuntzaren pertsonalizazioaz baliatuta eta dimentsio emozionalari arreta kontzientea emanez. Maila honek modu nabarian adierazten du planaren azken zentzua: ikasleak hezkuntza-ereduaren erdigunean kokatzea, funtsezko konpetentzien garapena eta ongizate integrala bermatuz.

2.1.

Biurteko lan- esparrua: hobekuntza-zikloa eta mailen arteko koherentzia

—

2026-2027 eta 2027-2028 ikasturteetan zehar, ikastetxeen jarduerak **plangintza, ekintza, jarraipena eta doikuntzako etengabeko ziklo** baten arabera antolatuko dira, Hezkuntza-emaitez hobetzeko hobekuntza-estrategia integralarekin (aurrerantzean, Hobekuntza-Estrategia integrala) bat etorritz. Ebazpen honek ikastetxe bakoitzean **aplikatu beharreko gutxieneko baldintzak** zehazten ditu: ebidentzietan oinarritutako lana, lehentasun mugatuak eta ardura argiak.

Biurtekoaren gako operatiboak:

- **Ebidentzien interpretazio komuna:** ikasturte hasieran, emaitzen eta beste adierazle batzuen azterketa partekatua egitea, indarguneak, arrakalak eta lehentasunak identifikatzeko.
- **Lehentasuna eta fokua:** helburu gutxi hautatzea eta ikastetxeko ekimenak horiei lotzen direla ziurtatzea, sakabanaketa saihestuz.
- **Arduradunak, kronograma eta adierazleak:** helburu bakoitzerako, jarduerak, arduradunak, egutegia eta jarraipena nahiz lorpena neurtzeko adierazle errazak zehaztea.

- **Berrikuspena eta doikuntza:** ikasturte erdian eta amaieran aurrerapenak aztertzea, doikuntzak egitea eta ondorioak IUMean jasotzea, biurtekoari jarraitutasuna emateko.
- **Lehentasunekin lerrokatutako prestakuntza:** irakasleen prestakuntza hautemandako beharrei eta IUPeko helburuei lotuz planifikatzea, ikasgelan nola aplikatzen den erakusten duten ebidentziekin (ikus 2.3 epigrafea).

Esparru honen helburua da lehentasunak ikastetxean, irakasle-taldeetan eta ikasgelan **erabaki egiaztagarri** gisa gauzatzen direla ziurtatzea, jarraipena eta kontu-ematea ziurtatuz.

2.2. 2026-2028 aldirako hobekuntza- lehentasunak: ikastetxeen jarduerarako orientazioak —

2.2.1. Hobekuntzarako ebaluazioa: Ikastetxeetan gauzatu beharreko jarduerak

- **Azterketa antolatzea:** egutegia, arduradunak eta guneak (zuzendaritza-taldea, batzorde pedagogikoa, sailak/arloak, tutoretzak) zehaztea, ikasturte bakoitzaren hasieran, erdian eta amaieran emaitzak berrikusteko.
 - **Ebidentziak triangulazioa:** datu kuantitatiboak (emaitzak, tasak, adierazleak) eta ebidentzia kualitatiboak (gelako behaketak, ikasleen lanak, ebaluazioak, tutoretzako eta bizikidetzako informazioa) konbinatzea, irakurketa partzialak saihesteko.
 - **Neurriak adierazleekin zehaztea:** lehentasun bakoitzerako, jarduerak, jarraipen-adierazleak eta arrakasta-irizpideak zehaztea.
 - **Partekatu eta komunikatu:** ondorioak klaustroari eta Eskola Kontseiluari aurkeztea, eta hala dagokionean familiei zein ikasleei informazioa emateko kanalak ezartzea, erantzukidetasuna bultzatuz.
- Helburua datuak **erabilgarriak** izatea da: programazioaren doikuntzak, metodologia, ebaluazio hezitzailea eta laguntzen antolaketa bideratzeko, eta adostutako neurrien eragina egiaztatzeko aukera emateko.

2.2.2. Matematikako, irakurketako eta zientzietako konpetentziak hobetzea

2026-2028 biurtekorako, ikastetxeek matematikako-, irakurketako- eta zientzietako-konpetentziak hobetzen ahalegindu beharko dira, ikasgelaren, irakasle-taldearen eta ikastetxearen antolaketaren arteko esku-hartze koherente baten bitartez. Helburua da jarduera jarraituekin, neurgarrieekin eta testuingurura egokitutakoekin aurrera egitea, arrakalen murrizketa eta ikasle guztien aurrerapena lehenetsiz.

Zer egin behar dute ikastetxeek? (Hobekuntza-Estrategia integralaren barruan garatutako programa eta baliabide espezifikoak baztertu gabe):

- **Adostasun didaktiko komunak zehaztea:** irizpide partekatuak finkatzea, mailen arteko koherentzia ziurtatuz zenbait alderdiri buruz: eguneroko irakurketa, ikasgai eta arlo guztietako testu mota desberdinen irakurketa, problemak ebaztea eta abar.
- **Eragingarriak diren laguntzak antolatzea:** talde-banaketak, koirakaskuntza, taldekatze malguak eta errefortzuak ikasgela arruntaren barruan erabiltzea, zailtasun gehien dituzten ikasleak lehenetsiz.
- **Prestakuntza** hautemandako lehentasunen arabera **diseinatzea**.
- **Hobekuntza-sekuentziak planifikatzea:** konpetentzia bakoitzeko jarduera batzuk hautatzea (arduradunekin, baliabideekin eta jarraipenarekin), eta Ikastetxearen Urteko Planean txertatzea.
- **Doikuntzarako ebaluatzea:** ebaluazio hezitzailea erabiltzea ikasleen aurrerapenari jarraipena egiteko eta irakaskuntza (atazak, laguntzak, denborak eta taldekatzeak) ikasturtean zehar doitzeko.

Aipatutakoa baztertu gabe, ikastetxeek ziurtatu beharko dute eremu honetan bultzatutako edozein jarduera (izan ekimen propioetatik eratorria, izan Sailak sustatutako programetatik eratorria) ikastetxearen ohiko plangintzan integratzen dela eta ez duela esku-hartze isolatu gisa funtzionatzen.

Bereziki, ikastetxeak programa edo baliabide horietakoren batean parte hartzen duenean, jarraian aipatzen direnak egin beharko ditu:

⇒ IUPean horren ezarpena **diagnostikoaren** arabera justifikatu (barne- eta kanpo-ebaluazioen emaitzak eta bestelako ebidentziak).

⇒ **Hobekuntza-helburu** zehatz batekin edo batzuekin lotu.

⇒ **Ikastetxearen Urteko Planean** aurreikusitako jarduerak (zer egingo den, norekin, noiz eta zer baliabiderekin) eta **arduradunak** deskribatu.

2.2.3. Ongizatea, bizikidetza eta hezkidetza

2026-2028 biurtekoan, ikastetxeek estrategiaren hirugarren zutabea egin beharko dute aurrera: **ongizatea, bizikidetza eta hezkidetza, prebentzioa eta hezkuntza oinarritutako** ikuspegi batetik, tutoretza-ekintzarekin eta ikastetxearen antolaketarekin lotuta, bizikidetza eta ikaskuntza erraztuko duten ingurune seguruak bermatzeko. Jarduerak ikastetxean bertan hautemandako beharren arabera lehenetsiko dira (autodiagnostikoak, Bizilagun autoebaluazio-tresna, erregistroak, behaketa eta hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea...) eta Ikastetxearen Urteko Planean txertatuko dira.

Jarraian, **egin beharreko jarduerak** modu operatiboan jasotzen dira, IUPean txertatzea eta Urteko Memorian horien jarraipena egitea errazteko.

- Ikastetxean eta ikasgelan egin beharreko jarduerak
- **Diagnostikoa eta jarraipena:** autodiagnostikoak, tresnak eta ikastetxeko erregistroak (giroa, bizikidetza, absentismoa, gertakariak...) erabiltzea ereduak identifikatzeko, lehenesteko eta neurrien eraginkortasuna berrikusteko.

- **Prebentzioa eta hezkuntza sozioemotionala:** arauak eta errutinak adostea, bai eta tutoretza-ekintza (taldekakoa zein banakakoa) sistematikoki garatzea ere, helburuekin eta jarraipen-ebidentziekin.

- **Ikasleen parte-hartzea:** berdinen arteko parte-hartze eta laguntza-egiturak bultzatzea (adibidez, bitartekotza eta erantzunkidetasuna ikasgelako/ikastetxeko adostasunetan), kide izatearen sentimendua eta bizikidetza indartzeko.

- **Erantzun hezitzailea eta errestituatiboa:** gatazken eta edozein indarkeria-motaren aurrean prozedura argiekin jardutea, hezkuntza- eta babes-neurriak eta errestituatiboak lehenetsiz.

- **Hezkidetza:** berdintasunaren eta tratu onaren ikuspegia, baita hezkidetzaren hamar zutabeak ere, arauetan, tutoretzetan, irakasgai edo arlo desberdinetako programazioetan, eguneroko jardueretan eta ikastetxearen antolakuntzan txertatzea, horien ezarpenaren jarraipena eginez.

- **IUPean integratzea:** arduradunak izendatzea, egutegia eta adierazle errazak diseinatzea, eta Urteko Memorian aurrerapenak zein doikuntzak islatzea.

Hiru zutabeekin lotutako jarraibideak, tresnak eta laguntza-protokoloak (erakunde-ekimenak eta baliabideak barne) Hobekuntza-Estrategia Integralaren dokumentuan eta dagozkion erreferentziazko materialetan garatzen dira. Ikastetxeek beren diagnostikoaren arabera erabiliko dituzte, eta beren plangintzan eta jarraipenean integratuko dituzte.

2.3.

Irakasleen
garapen
profesionala
hiru zutabeen
zerbitzura:
transferentzia
eta eragina

—

Irakasleen garapen profesionalaren Hobekuntza-Estrategia Integralaren **hiru zutabeen zerbitzura dagoen prestakuntza** gisa ulertzen da: (1) hobekuntzarako ebaluazioa (datuen erabilera pedagogikoa eta jarraipena), (2) oinarritzko ikaskuntzen eta konpetentzien hobekuntza (batez ere irakurmena, matematika eta zientziak) eta (3) ongizatea, bizikidetzak eta hezkidetzak. Ondorioz, ikastetxearen prestakuntza-plangintzak diagnostikoari erantzun beharko dio eta, IUPean jasotako helburuei lagundu beharko die modu egiaztagarrian.

2026-2028 biurtekoan, prestakuntza eta bidelaguntza Ikastetxearen Urteko Planeari jasotako lehentasunekin **lotutako ibilbide** gisa ulertuko dira, eta jarraipena eta ikasgelako aplikazioaren ebidentziak jaso beharko ditu. Ez dira ekintza isolatu gisa planteatuko; aitzitik, klaustroan **partekatutako eta mantendutako praktikak finkatzeko** palanka gisa planteatuko dira.

Ondorioz, ikastetxe bakoitzak **lehenetsi** beharko du zer ikasi behar duen hobetzeko (eta zer ez), eta gutxienez honako hauek jasoko dituzten prestakuntza-ekintzak planifikatu beharko ditu: helburuak, hartzailak, ikasgelako aplikazioa, materialak, irakasleen arteko kontraste-guneak, laguntza eta berrikuspina. Lortu beharreko hobekuntza da ikasitakoa bihurtzea irakasle-taldeek denboran zehar mantentzen dituzten akordio eta praktika komun.

Esparru horretan, ikastetxeko prestakuntza **hobekuntza-ziklo laburretan** (probatu-behatu-doitu) antolatzea sustatuko da, eta **transferentzia**-mekanismo esplizituak izatea (berdinen arteko behaketa, koirakaskuntza, ikaskuntza-ebidentzien analisia, material komunak), eragina ikasgelara irits dadin eta klaustroan orokortu dadin.

Testuinguru horretan, **Berrikuntza Arduradunak** eta **ongizateko eta babeseko koordinatzaileak, zuzendaritza-taldearekin** koordinatuta, **diagnostikoaren, prestakuntzaren eta hobekuntzaren** arteko **lotura gisa** jardungo dute. Lagunduko dute beharrak zehazten, IUPeko helburuekin koherenteak diren prestakuntza-ekintzak hautatzen eta ikasgelako transferentzia bermatzen, bidelaguntzarekin, lankidetzan lanaren dinamizazioarekin eta ebidentzien jarraipenarenarekin.

Halaber, **Berrikuntza Arduradunak** garrantzi handia izango du ekimenak eta proiektuak (**Hezi+**, adibidez) integratzean eta garatzean; proiektu horiek eskola-jarduerarekin lotzea eta ikasle guztien ikaskuntzak hobetzera bideratzea erraztuko du. Horretarako, esku-hartzeko gune desberdinen arteko koordinazioa bultzatuko du (gela, laguntzak eta programa espezifikoak) eta denboran mantenduko diren praktika partekatuak sustatuko ditu.

Ikastetxea
plangintza,
hobekuntza eta
eraldaketarako
unitate gisa

③

EBAZPENAREN HIRUGARREN PUNTU HONETAN, IKASTETXEAREN ANTOLAKETARI ETA PLANGINTZARI BURUZKO ALDERDIAK JORRATUKO DIRA, ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXE PUBLIKO GUZTIETAN KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK EZARRIKO DIRA.

3.1.

Ikastetxearen hezkuntza- proiektua

2025-2028 aldirako Euskal Eskola Publikoaren Plan Estrategikoaren (EEPE/PETE) 1. Ardatzak («Lidergo pedagogiko partekatua») jasotzen duen bezala, eskola-zuzendaritzari dagokio, baliabideak eta prozesuak kudeatzeaz gain, ilusioz betetako **proiektu kolektibo bat bultzatzea, ikasleen arrakastara eta hezkuntza-komunitate osoaren garapen integralera** bideratua. Zuzendaritzari dagokio ikastetxearen plangintza estrategikoa testuinguruari eta erronkei egokitzea eta hori **ikastetxearen Hezkuntza-Proiektuan (IHP) islatzea**, komunitate **osoarentzako jardun pedagogikoaren iparrorratza** (curriculum-zehaztapena) izan dadin.

Haren prestaketarako eta eguneratzerako, ikastetxeak gida eguneratua eta laguntza-material teorikoak, metodologikoak eta teknikoak (txantiloak barne) erreferentzia gisa erabil ditzake.

Lidergo pedagogiko partekatua garatzea, berriz, **ikastetxeko hezkuntza-komunitateko eragileek** IHPren diseinuan, **garapenean eta eguneratzean parte hartzea sustatzea da**. Ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza-proiektua garatu behar du **tokiko errealitatera egokituz**, ingurunearen ezaugarri sozioekonomikoak eta kulturalak kontuan hartuta, bai eta haren nortasuna eratzten duten antolaketa-kulturaren balioak eta elementuak ere. Dokumentu honek, aldi berean, **tresna malgua** izan behar du, testuinguruan denborarekin gerta daitezkeen aldaketetara egokitzeko gai izango dena.

Euskal Hezkuntza Legearen 97. artikuluaren arabera, IHP da ikastetxearen erreferentziazko dokumentu nagusia, eta bertan zehaztuko dira bere **nortasuna, misioa, ikuspegia, balioak eta helburu estrategikoak**, hezkuntza-komunitatearen ezaugarriekin, inguruarekin eta indarrean dagoen araudi-esparruarekin koherentziaz.

IHPk gutxienez ondoko hauek jaso behar ditu:

- Ikastetxearen **printzipio pedagogiko eta antolakuntzakoak**.
- **Hezkuntza-helburu nagusiak**.
- **Curriculumaren zehaztapena eta irizpide metodologikoak**.
- Ikasleen **funtsezko kompetentzien** garapena, ikaslearen irteera-profilarekin bat etorriz.
- Hizkuntza-, curriculum- eta antolakuntza-esparruetako **lehentasunezko jarduerak**.
- **Ikastetxearen ekarpena herritar aktibo, iraunkor eta berdinzaleen** garapenari, giza eskubideekin eta bizikidetzarekin konprometituta.

Eskola Kontseiluari dagokio IHPa onartzea, eta ikastetxeak plana hedatu eta hezkuntza-komunitate osoari iritsiko zaiola **bermatu** beharko du.

Ikastetxearean identitatea jasotzeaz gain, IHPa ikastetxearen **autonomia pedagogikoa indartzeko funtsezko tresna estrategikoa** ere bada, bere proiektu propioa eta hobekuntza-estrategia bereizia jasotzen baititu.

Hala ere, **ikastetxe publikoen** kasuan, bereziki garrantzitsua da IHPa berrikusteko eta hobetzeko prozesuak [Euskal Eskola Publikoaren 2025-2028 Plan Estrategikoa](#) (EEPE) izatea **lehentasunezko erreferentzia**. Plan horrek ez du soilik sistema osoaren hobekuntzarako ibilbide-orria zehazten, baizik eta ikastetxe bakoitzari eskaintzen dio **esparru bateratua identitateari, lidergoari, plangintza estrategikoa eta barne-koherentziari** dagokienez.

EEPEk euskal eskola publikoaren ikuspegi integrala jasotzen du (euskalduna, inklusiboa, eraldatzailea, erantzukidea eta ekitatearekin konprometitua) eta hori islatu behar da IHPren misioan, ikuspegian, balioetan eta helburu estrategikoetan. Gainera, bere **hamar ardatz estrategikoek** egitura argia eskaintzen dute ikastetxearen lehentasun pedagogikoak eta antolamendukoak berriro pentsatzeko, jardun-ildo horiek hezkuntza-sistemaren erronka partekatuekin lerrotatu daitezten.

Horrez gain, EEPEk **lidergo pedagogiko partekatuen ikuspegi argia** eskaintzen du, **epe ertainera planifikatzaren** garrantzia, ikastetxearen **plangintza-dokumentuen arteko barne-koherentzia** (IHP, IUP prestakuntza-planak eta programak barne) eta **ebidentzietan eta erantzukidetasunean oinarritutako kultura profesionala finkatzeko** bidea zabaltzen du.

Era berean, eskola publikoak beren **funtzio soziala berriro pentsatzera** gonbidatzen ditu, inguruarekin harremanak sendotuz, ekitatea bultzatuz eta komunitate hezitzaile irekia, kohesionatua eta ongi komunaren aldeko konpromisoa sustatuz.

Horrenbestez, Plan Estrategikoa IHParen eguneratzea gidatuko duten hausnarketa kolektiboko prozesuen bizkarrezurra izan behar du; horrela, dokumentu hori ez da izapide administratibo huts gisa hautemango, **hezkuntza-eraldaketarako tresna bizi gisa** baizik.

3.2.

Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua (IHP)

2023ko Hezkuntza Legeak bere [68. artikuluan](#) zehazten duenez, funtsezkoa da ikastetxeek hizkuntza-proiektu propioa izatea eta garatzea, haien egoera soziolinguistikoan oinarritua, ikastetxean hizkuntzak nola tratatu behar diren zehazteko.

Gizartearen etengabeko aldaketak hizkuntza-erronka berriak ekarri dizkio gure hezkuntza sistemari. Ikasgeletan dugun hizkuntza- eta kultura-aniztasun gero eta handiagoak, hezkuntza-komunitatearen errealitate soziolinguistiko eta kulturalak, komunikazio euskarri berriek, irakurtzeko modu eta ohitura desberdinek ezinbestean eskatzen

digute hizkuntzak irakasteko eta erabiltzeko, eta hizkuntza eta kultura guztiak balioesteko estrategia eraginkorrei buruzko gogoeta egitea, erabaki kolektiboak hartzea, eta erabaki horiek ikasgeletan eta ikasgeletatik kanpo gauzatzea.

Horregatik, hurrengo ikasturteetan inoiz baino garrantzitsuagoa izango da ikastetxeek gogoeta soziolinguistiko, kultural zein didaktikoak egin eta handik ateratako ondorio zein erabakiak Hizkuntza-Proiektuan islatu eta garatzea.

Euskal Eskola Publikoa eraldatzeko I. Plan Estrategikoa (2025-2028) ikastetxeetako hizkuntza-proiektuen garapenerako oinarrizko erreferentzia-esparrua da. Horrenbestez, ikastetxeko hizkuntza-proiektua planaren hirugarren ardatzean (euskara, eleaniztasuna eta kultura-aniztasuna) jasotako helburuekin lerrokatu eta horei erantzutera bideratuko da:	HELBURU ESPEZIFIKOAK
3.1. Euskararen hizkuntza-konpetentzia egokia bermatzea, haren erabileran sakontzea eta euskal kulturaren transmisioa sustatzea.	3.1.1. Euskal Eskola Publikoko ikastetxe guztietan, irakaskuntzako komunikazio-hizkuntza euskara dela ziurtatzea, eta euskararen erabilera sendotzea jardun pedagogikoan, eskola-bizitzan, ikasleentzat zein irakasleentzat euskal kultura transmititzeko tresna izan dadin. 3.1.2. Ikastetxeetan dauden figura profesional guztiek euskara ikasi eta erabil dezaten sustatzea, baita euskararekiko atxikimendua ere. 3.1.3. Ikasleen hizkuntza-murgilketa indartzea, eta, horretarako, arreta berezia jartzea lehen haurtzaroari eta garai ezberdinetan sisteman txertatzen diren ikasleei, metodologia berritzaileak eta baliabide espezifikoak erabilia.
3.2. Ikasle guztien komunikazio- eta hizkuntza-konpetentzia garatzea, ikuspegi integral eta eleaniztunetik.	3.2.1. Ikastetxe bakoitzaren errealitate soziolinguistikora egokitutako hizkuntza-proiektuak diseinatzea eta inplementatzea, eta ikasle guztiek beharrezkoak diren hizkuntza-konpetentziak garatuko dituztela bermatzea, Euskal Hezkuntzaren Legean ezarritako mailen arabera. 3.2.2. Ikuspegi eleaniztuna sustatzea, hizkuntzen arteko ikaskuntzen transferentzia erraztuko duten eta hizkuntza desberdinetan komunikatzeko konpetentziaren garapena indartuko duten estrategia metodologikoen bidez.
3.3. Eskola-ingurunea aberastea, eta kultura-aniztasuna hezkuntza-komunitatearentzat aberastasun sozial eta pertsonalaren iturri gisa integratzea.	3.3.1. Ikasleen hezkuntza-, hizkuntza- eta kultura-premia bereziei erantzuteko neurri espezifikoak diseinatzea, eta eskola-bizitzan erabat integratzen direla ziurtatzea. 3.3.2. Kulturarteko ikuspegia txertatzen duten hezkuntza-proiektuak garatzea, eta pertsonen eta haien kulturen aitorpena sustatzea.

Helburu horiek lortzeko, Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuak (IHP) ezinbestean bere egin beharko ditu hezkuntza Legeak, Euskal Eskola Publikoa eraldatzeko I. Plan Estrategikoak eta Curriculum Dekretuek ezartzen dituzten honako printzipio metodologiko hauek:

- ⇒ Euskararen ardaztutako eta ikuspegi eleaniztuna eta kulturartekoa duen jardun pedagogikoa.
- ⇒ Hezkuntza komunitatean, ikastetxean eta ikasgelan euskararen normalizazioa eta euskal kulturaren transmisioa sustatuko duen helburuak eta horiek garatzeko ekintzak zehaztea.
- ⇒ Curriculum-hizkuntza guztien (euskara, gaztelania eta ingelesa nagusiki) lanketa bateratu eta koherentea.
- ⇒ Hizkuntzen trataera integrala, non arlo, eremu eta jakintzagai guztietan hizkuntza alderdiak modu planifikatu eta sistematikoan landu eta ebaluatuko diren.
- ⇒ Elkarrekintza sustatzen duten hautu metodologikoak.
- ⇒ Sisteman une desberdinetan sartzen diren ikasleei zuzendutako hezkuntza-erantzun espezifikoak, hizkuntza-eskurapena eta inklusioa bermatzeko.
- ⇒ Ikastetxearen barneko lanaren eta ikasleen kanpoko jardueraren arteko lotura eta lankidetzak, euskararen ezagutza eta erabileraren garapenaren jarraipena egiteko helburuarekin.

Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuak (IHP) duen garrantziaz jabetuta, Hezkuntza Sailak hainbat ekimen garatu ditu azken ikasturteetan, eta datozenetan hedatu eta indartu egingo dira:

⇒ Alde batetik, azken hiru ikasturteetan 30 ikastetxek hartu dute parte beren Hizkuntza Proiektuak berritzeko eta garatzeko berrikuntza-prozesu pilotuan.

⇒ Bestetik, Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuan (IHP) erabakitakoa garatu ahal izateko, hainbat programa eta prestakuntza dituzte eskura ikastetxeek, proiektuetan hautemandako beharrei erantzun egokia eman ahal izateko. [EUSLE programa](#), [irakurmen-konpetentzia indartzeko programa](#) edo ahozko komunikazioa lantzeko [Berba-lapiko programa](#), beste batzuen artean.

⇒ Gainera, **Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuak** (hemendik aurrera, EUSHI) hizkuntzen esparru berri bat lantzen ari da, eta, Hizkuntza Proiektuak (IHP) arautuko dituen dekretu bihurtuko da. Dekretu berri horrek zehaztuko ditu ikastetxeek hizkuntza-proiektuak garatzeko garatzeko eta ebaluatzeko ezartzen diren ardatzak eta prozedurak.

⇒ Datozen ikasturteetan, Hezkuntza Sailak **"Hizkuntza Kudeatzailea"** figura modu progresiboan sartzen jarraituko du ikastetxeetan. Ikastetxeak izango dira beren **hizkuntza-proiektuak** diseinatzearen, garatzearen eta horien jarraipena egitearen arduradunak, eta eginkizun hori figura arduradun horren bitartez bideratuko da. EUSHIk hartuko du bere gain langile horien prestakuntza eta ikastetxeetako hizkuntza-proiektuen jarraipena, prozesuen kalitatea eta lortutako emaitzen eraginkortasuna bermatzeko helburuarekin.

Prozesua abiatu arteko datozen ikasturteetan ikastetxeen egitekoa izango da euren hizkuntza proiektuari jarraipena egin eta ebaluatzea, betiere, adierazitako helburuak kontuan hartu eta zehazten direla ziurtatuz.

3.3.

Ikastetxearen Urteko Plana (IUP)

Zuzendaritza-taldeak **Ikastetxearen Urteko Plana (IUP)** prestatzeko lana koordinatuko du; **Eskola Kontseiluak onartuko du** plan hori eta **Hezigunearen bidez bidaliko da urriaren azken eguna** baino lehen. Lanketa errazteko, Hezkuntza Sailak txantiloia eguneratu bat emango die ikastetxeei.

IUP ikasturte bakoitzean ikastetxearen lehen-tasunak zehazteko tresna labur, praktikoa eta ebaluagarria da. Beste dokumentu estrategiko batzuekin (IHP, AJA, etab.) bikoiztasunak saihestu behar ditu eta ikasturte honetan egin beharrekoan zentratu: helburuak, jarduerak, arduradunak, baliabideak, egutegia eta adierazleak.

IUPek, gutxienez, honako hauek jasoko ditu:

- Ikasturteko lehen-tasuneko **helburuak**, emaitzen analisietan eta barne-ebaluazioan (eta, batzuetan, kanpo-ebaluazioan) oinarriturik zehaztuko direnak.

- Helburuei lotutako **hobekuntza-jarduerak**, arduradunekin, egutegiarekin eta baliabideekin.
- Ikaskuntzari eta emaitzei, ekitateari, inklusioari, bizikidetzari eta ongizatearekin lotutako **jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak**.
- **Irakasleen urteko prestakuntza-plana**, ikasturteko helburuekin bat datorrena eta ikasgelako aplikazioaren ebidentziak jasoz.
- Jarraipen- eta ebaluazio-prozedurak, bai eta **Eskola Kontseiluari** eta hezkuntza-komunitateari emateko informazioa ere.

Prozesu horretarako, ikastetxeek **Hezkuntza Ikuskaritzaren gainbegiratzea eta bidelaguntza** eta **HeziLaben aholkularitza** izango dute, emaitzak aztertzeo, lehen-tasunak zehazteko eta ekintzak integratuta geratzen direla eta ebaluagarriak direla bermatzeko.

Jarraian, IUPen atal nagusiak laburbiltzen dira:

- ⇒ Irakaskuntza-jardueren programa
- ⇒ Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko jardueren programa

⇒ Urteko kudeaketa-programa

⇒ IUPen garapenaren eta ikastetxearen funtzio-namenduaren jarraipena

3.3.1. Irakaskuntza-jardueren programa

Programa hori egitea klaustroari dagokio, edo, hala badagokio, batzorde bati delegatu lekiokie.

Honako azpiatal hauek izango ditu:

1 — Helburuak, ekintzak eta lorpen-adierazleak

Ikastetxearen Urteko Planak (IUP) **lehentasunezko helburu mugatu batzuk** ezarriko ditu, egokiak diren ebidentziak oinarri dituela definituta (barne eta kanpoko emaitzak, beste eskola-adierazle batzuk eta, dagokionean, Unibertsitatean Sartzeko Probaren (USaP) emaitzak). Helburu bakoitza **gauzagarriak diren jardueretan** zehaztuko da, eta **arduradunak, egutegia, baliabideak** zein **prozesu-eta emaitza-adierazleak** izango ditu, bete-maila eta eragina balioetsi ahal izateko.

Helburu horiek **hobekuntza zehatz eta ebaluagarrietara** bideratu beharko dira, Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektuarekin eta Emaitzak **Hobetzeko Estrategia Integralarekin** lerrokatuta. Helburua Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak, dibertsitateari emandako erantzuna eta ongizate-eta bizikidetza-baldintzak indartzea izango da, eta ikasle guztien hezkuntza-arrakasta bermatzea eta kolektibo ahulenei arreta berezia eskaintzea.

2 — Hezkuntza Konplexutasunaren Indizea (HKI)

Hezkuntza Konplexutasunaren Indizea (HKI) aplikatzearen ondorioz baliabide gehigarri bat lortu duten ikastetxeek Ikastetxearen Urteko Planean **baliabide horren aurreikusitako erabilerari**

buruzko azalpen-atal bat sartu beharko dute, ikasleek eskola-ordutegian duten ikaskuntza-prozesuan eragina izateko, eta ikasleen emaitzak hobetzeko.

Horregatik, baliabide hori ikasgela arruntetan jarduerak garatzeko erabili beharko da, hala nola:

- ⇒ Talde txikiak sortzea
- ⇒ Koirakaskuntza
- ⇒ Errefortzu espezifikoaren esleipena
- ⇒ Premia duten ikasleentzako esku-hartze pertsonalizatuak
- ⇒ Irakasleen arteko koordinaziorako denborak gordetzea
- ⇒ Ordutegiak eta espazioak aldatzea koirakaskuntza errazteko, bereziki DBHko 1. eta 2. mailako eremuetan.

Baliabide gehigarri hori erabiltzea, beraz, Hezi+ proiektutik kanpo gelditzen da.

Baliabide horrekin erlazionatutako jarduerak irakurmenaren, **matematikaren eta zientziaren alorreko kompetentzia-emaitzak hobetzeko ildo estrategikoaren** barruan kokatu behar dira bereziki, Hezkuntza Sailak bultzatutako programa espezifikoetan jasotzen den bezala. Programa horiek hezkuntza-konplexutasun handiena duten ikastetxeetan hiru funtsezko kompetentzia horiek

indartzeko beharra nabarmentzen dute, honako neurri hauek txertatuz:

- ⇒ **Eskola-ordutegian antolatutako eta planifikatutako errefortzuak.**
- ⇒ **Metodologia inklusiboak eta kooperatiboak erabiltzea, koirakaskuntza, besteak beste**
- ⇒ **HBSL eta Eraldatzen programekin lerrokatutako errefortzu-jarduerak**

Eraldatzen programan parte hartzen duten ikastetxeek ziurtatu beharko dute ordu-baliabide horren heren bat gutxienez programaren arduradunari esleitzen zaiola eta errefortzu-ekintzak ikastetxearen Hobekuntza Plan Estrategikoan txertatuta daudela ekitatearen, inklusioaren eta ikasleen parte-hartze aktiboaren ikuspegitik.

3 — Ohiko Irakaskuntza Jardueren Programa (OIJP)

Ohiko Irakaskuntza Jardueren Programak (OIJP) ikasturteko irakaskuntza-jarduera antolatzeko beharrezkoak diren urteko akordioak jasoko ditu, modu sintetikoan, Ikastetxeko Hezkuntza Planarekin eta IUPen helburuekin koherenteak izanik. Honako azpiatal hauek jasoko ditu:

1. Ikastetxearen funtzionamendua eta antolamendua

Azpiatal honek urteko antolaketa-erabakiak eta -doikuntzak baino ez ditu jasoko: ebaluazio-egutegia, familiekiko harreman-bideak, laguntzen/errefortzuen antolaketa, koirakaskuntza... eta dagokion ikasturterako beharrezkoak diren gainerako akordioak.

2. Berrikuntza eta hobekuntza

Azpiatal honek ikasturte honetarako aurreikusitako berrikuntza- eta eraldaketa-jarduerak aipatuko ditu, IUPen helburuei lotuta. Proiektu bakoitzeko, modu sintetikoan, honako hauek adieraziko dira: helburua, jarduerak, arduradunak, egutegia eta jarraipen-ebidentziak/adierazleak; eta, ordu-

krediturik balego, horren banaketa eta koordinazio-espazioak, praktikan aplikatzen dela bermatzeko.

3. Prestakuntza eta garapen profesionala

Azpiatal honek ikastetxeko irakasleen urteko prestakuntza-planajaso du. Plan horrek bat etorri behar du diagnostikoarekin eta IUPen helburuekin, eta irakaskuntza-praktikan transferentzia eta eragina izatera bideratuta egon beharko du. Berrikuntza Arduradunak, zuzendaritza-taldearekin koordinatuta, horren diseinua, ezarpena eta jarraipena dinamizatuko ditu. Era berean, BAT taldea, zuzendaritza-taldearekin koordinatuta, bizikidetza positiboa eta hezkidetza eraikitzearekin lotutako prestakuntzaren arduraduna izango da.

Prestakuntzaren plangintzak barne hartuko ditu:

- ⇒ IUParen lehentasunei lotutako prestakuntza-helburuak.
- ⇒ Ekintzak eta egutegia (formatuak eta aurreikusitako parte-hartzea).
- ⇒ Transferentzia- eta jarraipen-ebidentziak (akordioak, material komunak, irakasleen arteko kontrastea, etab.).

HeziLabek eta BiziLabek prestakuntza-eskaintza bat jarriko dute ikastetxeen eskura, hobekuntza-proiektuak hedatzeko klaustroaren eta zuzendaritza-taldearen garapen profesionalean laguntzeko diseinatua. Eskaintza hori berariazko orientabideekin, materialekin eta baliabideekin eta aholkularitzarekin osatuko da, ikastetxe bakoitzak bere plana osa dezan bere helburu estrategikoekin bat etorritik.

3.3.2. Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko jardueren programa

Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak ikastetxearen hezkuntza-eskaintzaren parte dira, eta bat etorri behar dute ikastetxearen hezkuntza-proiektuarekin eta hobekuntza-estrategia integrarean zehaztutako helburuekin. Ildo horretan, jarduera horiek modu eraginkorrean lagundu beharko dute ikasleen funtsezko konpetentziak garatzen, ongizate emozionala sustatzen eta ekitatea eta hezkuntza-inklusioa sustatzen.

1 — Jarduera osagarriak

Ikastetxeek eskola-egutegiaren barruan antolatutako hezkuntza-jarduerak dira, Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektuaren (IHP) curriculum-zehaztapenarekin eta Urteko Planarekin lotura zuzena dutenak.

Ohiko eskola-ordutegitik formatuagatik, espazioagatik edo baliabideengatik, baina nahitaezkoak dira ikasleentzat zein irakasleentzat, eta familiek hutsegiteak justifikatu beharko dituzte. Jarduera horiek ikuspegi pedagogiko, inklusibo eta ekitatibo batetik planifikatu behar dira, eta bereziki honako hauen garapenean lagundu behar dute:

- ⇒ Irakurmeneko, matematikako eta zientziako konpetentziak, bisita didaktikoen, tailerren, azoken, topaketen edo jardunaldi tematikoen bidez.
- ⇒ Ikasleen ongizate emozionala, bizikidetzako, emozio-kudeaketako, hezkidetzako, kooperazio-kulturako edo partaidetzako jardueren bidez.
- ⇒ Ikastetxearen gizarte- eta kultura-inguru-nearekiko lotura, sustraitzea, motibazioa eta parte-hartze aktiboa indartuz

Jarduera bakoitzerako, **helburuak**, ikastetxearen ildo estrategikoekiko harremana, eta **inplikaturako ikasleak eta irakasleak erregistratu** beharko dira, baita data, **lekua eta arduradunak** ere. Erregistro hori Eskola Kontseiluarentzat eta Hezkuntza

Ikuskaritzarentzat egongo da **eskuragarri**. Halaber, zuzendaritza-taldea arduratuko da irteeren erregistro hori **eguneratzeaz**. Eguneratuta ez badaude, IUP **onartu** ondoren aurreikusi direlako, **Eskola Kontseiluak** onartu beharko ditu aurretik eta **IUPan sartu** beharko dira.

Ikastetxe batek, jarduera osagarriak planifikatzen dituenean, ikasle **guztiak** hartu behar ditu kontuan. Guztiek dute jarduera horietan parte hartzeko eskubidea. Beraz, hori aurreikusi egin beharko da eta, ikastetxearen berezko baliabideak (irakasleak eta hezkuntzako langileak) kontuan hartuta, egokienak aukeratu beharko dira, inor jarduera horietatik kanpo geratu ez dadin. Ildo horretatik, beharrezkoa da jardueretan **irigarritasun unibertsalerako** beharrezkoak diren baldintzak aurreikustea, ikasle guztiek antzeko baldintzetan parte har dezaten.

Kontuan hartu beharko da ikastetxetik kanpo egiten diren jardueretan familien edo legezko tutoreen baimena beharko dela. Gainera, joan-etorriak jasangarritasun-irizpideekin programatu behar dira.

Justifikatutako arrazoiengatik ikasle batek irteeran **parte hartzen ez badu, ikastetxean behar bezalako arreta** eman beharko zaio eskola-egun osoan.

Ikastetxetik kanpo egiten den edozein jarduera osagarritan, ikasleek, kasu guztietan, eta ikasleekin gutxienez **bi profesional** joango dira, eta horietako bat gutxienez taldeko irakasle bat izanik. Hala badagokio, hezkuntza-laguntzako espezialista ere joango da.

Bestalde, gutxienez irakasle laguntzaile bat izango da 20 ikasleko edo 10etik gorako gainerako ikasle-multzo bakoitzeko, betiere aurretik adierazitako gutxieneko kopurua errespetatuta.

Honela jokatuko da:

IKASLE-KOPURUA	IRAKASLEAK
1-30	2
31-50	3
51-70	4
71-90	5
91-110	6

Salbuespen gisa, Laguntza Intentsiboko Programen (LIP) kasuan, ikasleekin ikasgelako erreferentziazko bi profesional joan ahal izango dira.

Ikasleekin gualdia egitea dakarten jarduerak egiten dituzten irakasleek baimen ordaindua izateko eskubidea izango dute, [EAEko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioa onartzen duen abenduaren 30eko 252/2025](#) Dekretuaren 52. artikuluan jasotako baldintzetan.

Egoera horiek gertatzen diren kasuetan, zuzendaritza-taldeak erregistro zehatza eraman beharko du.

2 — Eskolaz kanpoko jarduerak

Eskolaz kanpoko jarduerak eskola-ordutegitik kanpo gauzatzen dira eta borondatezkoak izan arren, funtsezko hezkuntza-balioa dute. Ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren (IHP) parte dira, eta bere **helburu estrategikoekin koherentziaz planifikatu beharko dira.**

Jarduerahaukeespaziopribilegiatua eskaintzen dute ikaskuntzak indartzeko eta aberasteko, ikasleen autonomia sustatzeko eta haien garapen integrala bultzatzeko, ingurune malguago, sortzaileago eta esanguratsuagoetan. Horregatik, ikastetxearen **lehentasunezko eremuekin lerrokatuta** egon beharko dute, batez ere honako hauetan:

- ⇒ **Euskara harremanetarako, parte-hartzerako eta gozamenerako hizkuntza gisa sustatzea**, eta euskal kulturarekiko bizipenetan oinarritutako hurbilketa erraztea, hizkuntza hori modu erreal eta bizian presente egon dadin jarduera ludiko, sortzaile edo lankidetzakoetan.
- ⇒ **Prestakuntza-arlo askotarikoetan** (hala ingurumen-, arte-, zientzia-, hizkuntza-jarduera nola fisiko eta kiroleko hezkuntzan) proposamenak txertatzea, ikasleek eginez ikasteko, esperimintatzeko, aurkitzeko eta adierazteko aukera izan dezaten, eta konpetentzietan oinarritutako ikuspegi motibatzailez.

⇒ **Konpetentzia transbertsalak**, hala, komunikazioa, sormena, lankidetzak, ekimena edo nola pentsamendu kritikoa, garatzen laguntzen duten jarduerak baliatuz, ikasgelan landutako ikaskuntzak osatzea eta sendotzea.

⇒ Alderdi **emozional eta harremanekoak** zaintzea, eskolaz kanpoko jarduerak aukera gisa baliatuz **ikasleen ongizatea, hezkidetzak, bizikidetzak positiboak eta ikastetxearekiko atxikimendua** indartzeko, eta, horrela, ikastetxe kohesionatuagoa, seguruagoa eta pertsona guztien parte-hartzeari irekiagoa eraikitzeko.

⇒ Irakurketa erabiltzea irakurtzeko ohitura sustatzeko eta ikasleak irakurtzeko plazerean “plazer hutsagatik irakurketan” eta beren buruarekin gustura sentitzeko egiten den irakurketa atseginean hezteko, jakinda, gainera, irakurtzeko zaletasunak ikasleei moldatzen laguntzeaz gain, eskola-arrakasta lortzen ere laguntzen diela.

⇒ Matematika, zientzia, robotika... **tailerrak**

Ikastetxe batek bere eskolaz kanpoko jardueren eskaintza antolatzen duenean, ikasle guztiak hartu behar ditu kontuan, **irigarritasun unibertsalaren, parte-hartze inklusiboaren eta ekitatearen** logikatik abiatuta. Horrela, ziurtatu egingo da **ez dela inor kanpoan geratuko** arrazoi ekonomiko, sozial, kultural edo funtzionalengatik.

Eskolaz kanpoko jarduerak guztiak **Ikastetxearen Urteko Planean (IUP)** jaso beharko dira. Ikasturtean zehar beste jarduerak batzuk planteatzen badira, Eskola Kontseiluaren aurretiko onarpena beharko dute, eta ondoren IUPen integratu.

3 — Atzerriko jarduerak osagarri edo eskolaz kanpokoak

Ikasleek **nazioarteko jarduerak hezitzaileetan** parte hartzea (truke-programak, Erasmus+ proiektuak, bidaia kulturalak edo hizkuntza-egonaldia) **aukera paregabea da haien garapen pertsonal, akademiko eta sozialerako**. Esperientzia hauek ikasleen ikuspegia zabaltzen dute, autonomia eta hizkuntza-konpetentziak garatzen dituzte, eta ikaskuntza interkulturala sustatzen dute; aldi berean, ikaskuntza-prozesuarekiko motibazioa eta konpromisoa indartzen dituzte.

Hori dela eta, Hezkuntza Sailak **ikasleekin atzerriko jarduerak antolatzea animatzen ditu ikastetxeak**, batez ere [Erasmus+ bezalako programa europarren](#) bidez, edo beste ekimen batzuen bidez, eskola ireki, internazionalizatu eta inklusibo bat bultzatzeko xedez.

Hala ere, jarduerak horietan **adingabeak diren ikasleekin atzerriko joatea** aurreikusten bada, ezinbestekoa da **haurren babesari buruzko indarrean dagoen legezko araudia betetzea**. Bai ikastetxeak, bai familiek, honako komunikazio ofizial honetan eskuragarri dauden oinarritzko jarraibide hauek hartu beharko dituzte kontuan: [Adingabeak atzerriko irteteko komunikazioa](#).

3.3.3. Urteko kudeaketa-programa

Urteko planaren atal hori zuzendaritza-taldea edo batzorde iraunkorrak prestatuko du, Eskola Kontseiluak onar dezan.

Finantza-baliabideen banaketa ikastetxean helburuak eta lehentasunak ezartzeko modu garrantzitsua da. Atal honetan kontuan hartu behar da kudeaketa ekonomikoaren (urte naturala) eta ikastetxearen urteko planaren (ikasturtea) aldi baterako epealdiak desberdinak direla.

Horregatik, atal honetan honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

⇒ Onartutako aurrekontuaren betetze-maila: horretarako, nahikoa da dokumentu batean aurrekontu-partida jakin batzuk jasotzea eta ordura arte zenbat diru erabili den (gastuak). Dokumentu hori kudeaketa ekonomikoko aplikazio informatikoak berak ematen du.

⇒ Hurrengo aurrekontuetarako gastu-irizpideak eta -aurreikuspenak, batez ere funtzionamenduarekin zerikusirik ez duten gastuei dagokienez: hornidurak, prestakuntza, obra txikiak, etab.

3.3.4. IUPen garapenaren eta ikastetxearen funtzionamenduaren jarraipena

IUPen garapenaren jarraipena ahalik eta modu parte-hartzaileenean egin behar da, eta, horretarako, ikasturte hasieran zehaztuko da jarraitu beharreko prozesua. Zuzendaritza-taldeak edo hezkuntza-komunitateko estamentuetako pertsonak berariaz sortutako batzorde batek egin dezake jarraipena.

Haren berri Eskola Kontseiluari eman beharko zaio, gutxienez behin, ikasturtearen erdialdean.

Planaren jarraipenetik eta ebaluaziotik eratorritako informazioa oinarritzko erreferentzia izango da Ikastetxearen Urteko Memoria egiteko.

Laburbilduz, IUPa plataformara igo aurretik, honako hauek egiaztatu beharko dira:

- **Eskola Kontseiluak onartu** duela eta prest dagoela ezarritako epearen barruan **Hezigunearen bidez bidaltzeko**.
- **Laburra** dela, beste dokumentu batzuekin bikoiztasunak saihesten dituela eta **gutxienez atalak** dituela: irakaskuntza-jarduerak, osagarriak/eskolaz kanpokoak, kudeaketa eta jarraipena.
- Ebidentziak oinarri hartuta, definitu diren (barne/kanpo emaitzak eta bestelako adierazleak) **lehentasunezko helburu gutxi** dituela.
- Helburu bakoitzak ekintzak dituela, **arduradun, egutegi** eta esleitutako **baliabideekin**; eta (hala dagokionean) kolektibo ahulentzako neurri espezifikoak jasotzen dituela.

- **Adierazleak eta ebidentziak** (prozesukoak eta emaitzakoak) definitzen dituela, ikaskuntzetan, ekitatean, bizikidetzan eta ongizatean duen eragina baloratzeko.
- Ikastetxeak **Hezkuntza Konplexutasunaren Indizea (HKI)** badu, hori justifikatuta eta planifikatuta dagoela (arrakalak murriztea, ekintzak, koordinazioa, adierazleak) eta Urteko Memorian horren balorazioa egitea aurreikusten dela.
- **Irakaskuntza-jardueren programak (OIJP)** ezinbestekoak diren urteko akordioak jasotzen dituela (antolaketa, berrikuntza eta prestakuntza), zerrenda luzerik gabe.
- **Jarduera osagarriek/eskolaz kanpokoek (atzerrikoak** barne, hala dagokionean) honako hauek jasotzen dituztela: irizpideak, arduradunak, oinarrizko erregistroa, inklusioa, bidelaguntza eta baimenak.

3.4.

Ikastetxearen Urteko Memoria (IUM)

Zuzendaritza-taldeak **Ikastetxearen Urteko Memoriaren (IUM)** lanketa koordinatuko du. IUM **hobekuntza-zikloaren funtsezko** tresna da: IUPen betetze-maila, ikastetxeak lortutako emaitzak (Diagnostiko Ebaluazioa edo kanpoko beste ebaluazio batzuk barne, hala dagokionean) eta ikasturtean zehar bildutako ebidentziak kontuan hartuta, ikastetxeak bere autoebaluazioa egingo du. Horrela, zein **helburu eta ekintza mantendu edo indartu behar diren** eta **zein helburu edo jarduera berri** gehitu behar diren identifikatuko du, betiere **Hobekuntza-Estrategia Integralren** esparruaren

barruan. Memoriak ikastetxearen ikuspegi orokor eta bateratua jaso beharko du.

Laburra eta zehatza izango da, ikastetxearentzat berarentzat hurrengo IUPa lantzeko orduan praktikoa izan dadin.

Memoria Eskola Kontseiluak onartuko du. Ikastetxeek Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura jarriko dute Hezigunearen bidez, **iraileko bigarren hamabostaldian**.

3.5. Proiektuak eta programak

3.5.1. HeziLabek Bigarren Hezkuntzan bultzatutako proiektuak, programak eta laguntza ildoak

Ebazpen honen indarraldian, Hezkuntza Sailak, HeziLaben bidez, hezkuntza-emaizak hobetzera, oinarritzko konpetentziak indartzera eta irakaskuntza-, ebaluazio- eta antolaketa pedagogikoko praktikak eraldatzera bideratutako proiektuak, programak eta jarduerak bultzatuko eta lagunduko ditu Bigarren Hezkuntzan.

HeziLaben esku-hartzea ez da programa, proiektu edo prestakuntza isolatuen eskaintza gisa ulertuko, baizik eta ikastetxeei laguntzeko laguntza-esparru gisa, hobekuntza-prozesu koherenteak eraiki ditzaten, beren diagnostikoari, lehentasunezko helburuei, plangintza arruntari eta ikasleen konpetentzien garapenari lotuta.

Ondorio horietarako, HeziLabek Bigarren Hezkuntzan dituen jarduerak elkarren osagarri diren bi dimentsioren inguruan artikulatuko dira: dimentsio didaktikoa, oinarritzko konpetentzien garapenari lotua, eta dimentsio metodologikoa, irakaskuntza-

praktikak, ebaluazioa, antolaketa pedagogikoa eta ikasgelarako transferentzia hobetzera bideratua.

Era berean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan [Hezi+](#) proiektuak rol garrantzitsua izango du. Hezkuntza Sailak bultzatu du esparru integratua izan dadin eta ikastetxearen antolaketa pedagogiko eta denborazkoaren bitartez hezkuntza-emaizak hobetzea, ekitatea indartzea eta ikasleen ikaskuntza-aukerak zabaltzea ditu xede. Proiektu honek konpetentziak indartzeko neurriak (batez ere irakurmenean eta matematikan, He-Indartuz erabiliz) eta ikastetxearen hezkuntza-eskaintza aberasteko jarduerak konbinatuko ditu He-Hobetuzen bidez eta, hala dagokionean, He-Aberastu, He-Elkarrekin eta He-Lagun izan erabiliz. Haren garapenak ikastetxearen erakunde-plangintzan txertatuta egon behar du, ikastetxearen hobekuntza-lehentasunei lotuta, eta Berrikuntza Arduradunaren partaidetzarekin, Hezi+ ikastetxe-sarearekin eta HeziLaben bidelaguntzarekin artikulatu behar da.

A — Dimentsio didaktikoa: irakurmena, matematika eta zientzia

HeziLabek jarduera espezifikoak bultzatuko ditu Bigarren Hezkuntzan irakurmen-, matematika- eta zientzia-konpetentziak hobetzeko. Jarduera horiek honako hauek izan ditzakete bere barnean: irakasleen prestakuntza, ikastetxeei laguntzea, ebidentzien erabilera pedagogikoa, didaktika-materialak egitea eta zabaltzea, eta indartzeko edo hobetzeko programa espezifikoak garatzea.

Irakurmenaren esparruan, honako hauetara bideratutako jarduerak sustatuko dira: ikasteko irakurtzea, testu konplexuen ulermena, irakurmena hobetzea irakasgai guztietan eta etapan berezkoak diren irakurketa-estrategiak finkatzea. Esparru horretan kokatuko dira, besteak beste, DBH Ikasteko Irakurri ibilbideari lotutako jarduerak eta, dagokionean, He-Indartuz ekimena.

Era berean, HeziLabek lerro zabalago bat bultzatuko du **Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen irakurketa-ekosistema** indartzeko. Ekosistema hori, irakurtzeko ohitura sustatzea, ikasleen irakurmena hobetzea eta liburuekin, testuekin eta irakurketarekin kontaktu esanguratsua izateko aukerak zabaltzea ahalbidetzen duten erabaki, baliabide, espazio, denbora eta praktiken multzo gisa ulertzen da. Lerro horrek honako hauekin lotutako jarduerak jaso ditzake: irakurketa autonomia eta partekatua, irakurketa-ibilbideen hautaketa, eskola-liburutegia, funts fisiko eta digitalen kudeaketa, **Elibrum** bezalako plataformen erabilera hezitzailea eta irakasgai guztietan irakurketaren txertaketa.

Matematika-konpetentziaren esparruan, arrazoibide matematikoa, problemen ebazpena, zentzu numerikoa, aljebraikoa, geometrikoa eta estatistikoa, eta etaparako egokiak diren estrategia eta materialen erabilera garatzera bideratutako jarduerak bultzatuko dira. Esparru horretan sartuko dira, besteak beste, DBHko matematikako prestakuntza-ibilbideak eta He-Indartuz neurria zehazten diren mailetan.

Zientzia-konpetentziaren arloan, arakatzea, esperimentazioa, pentsamendu kritikoa, alfabetatze zientifikoa, datuen analisia eta eskola-zientziaren, teknologiaren, jasangarritasunaren eta erronka ekosozialen arteko lotura oinarri duten proposamenak sustatuko dira.

Era berean, zientzia-konpetentziaren arloan kokatuko dira Eskoletako **Urmaelen Sarearekin** (EUS) lotutako jarduerak; proiektu hori hurbileko ekosistemen behaketa, analisia eta zainketa oinarri hartuta ikaskuntza zientifikora bideratuta dago. Jarduera horiek arakatzea, landa-lana, datu-bilketa eta interpretazioa, ingurumen-kontzientzia eta eskola-zientziaren eta ingurunearen arteko lotura sustatuko dituzte.

B — Dimentsio metodologikoa: arloak, Batxilergoa, IkasLab eta ebaluazioa

HeziLabek laguntza emango die Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei haien praktika metodologikoak, ebaluatzaileak eta antolakuntzakoak hobetzeko, konpetentzia-ikuspegiak gain, ikuspegi inklusibo, aktibo eta ebidentzietan oinarrituak bultzatuz.

Dimentsio honetan kokatuko da arlokako lanari eman beharreko bidelaguntza, batez ere DBHn, ikaskuntzaren antolaketa integratuago baterantz aurrera egiteko, irakasleen arteko koordinazioa errazteko, curriculumaren zatiketa murrizteko eta konpetentzien curriculumarekin koherenteak diren diziplinarteko proposamenak sustatzeko. Bidelaguntza horrek ikastetxeei lagundu behar die arlo-proposamen sendoak, jasangarriak eta beren antolaketa-egoerara egokituak diseinatzeko, garatzen eta ebaluatzen.

Era berean, HeziLabek Batxilergoaren eraldaketa metodologikoari lotutako jarduerak bultzatuko ditu, irakaskuntza- eta konpetentziekin lotuago dauden ebaluazio-praktikak bultzatzeko, etaparen erronka berriekin eta Unibertsitatara Sartzeko Probaren bilakaerarekin lotuta. Lerro horrek gehiegizko transmisio-ikuspegiak gainditzeko lagundu behar du,

baita ikasleek informazioa aztertze, argudiatze, ezagutzak aplikatzeko, arazoak konpontze eta ikasitakoa egoera konplexuetara transferitzeko duten gaitasuna indartzen ere.

Esparru horretan kokatuko da IkasLab proiektua ere, ikaskuntza-ingurune berritzaileak, metodologia aktiboak, arakatzea, lankidetzak, sormena, problemen ebazpena eta baliabide digital, teknologiko nahiz manipulatioen erabilera esanguratsua sustatzera bideratua. Dagoeneko IkasLab guneak edo esperientzia finkatuak dituzten ikastetxeetan, esperientzia horiek ikastetxearen hobekuntza-lehentasunen eta Sailak bultzatutako lerro estrategikoen zerbitzura jarri beharko dira progresiboki.

Ebaluazioak funtsezko izango du dimentsio honetan. HeziLabek ebaluazio hezitzaile eta formatiboa eta jarraitua praktika pedagogikoaren erdigunean jartzeko jarduerak bultzatuko ditu, prozesuko ikaskuntza-ebidentzien bilketaren, ikasleei emandako feedbackaren, autoerregulazioaren eta konpetentzien araberrako ebaluazioaren bidez. Era berean, kanpo-ebaluazioaren erabilera pedagogikoa sustatuko da, baina ez helburu gisa, baizik eta ikastetxearen hobekuntza bideratzeko, irakaskuntza-praktikak berrikusteko eta ondo oinarritutako erabakiak hartzeko informazio-iturri gisa.

C — Curriculumaren erreferentziarako esparru komun gisa

Curriculumaren da HeziLabek bultzatutako jardueren erreferentzia-esparrua. Prestakuntzaren, bidelaguntzaren, materialen eta hobekuntza metodologikoaren arloetako proposamenek curriculumaren ikastetxeen egunez-eguneko praktikan aplikatzen lagundu beharko dute.

Alde horretatik, HeziLabek tresnak, orientabideak eta materialak eskainiko ditu, ikastetxeei curriculumaren konpetentzia-ikuspegiarekin koherenteak diren

proposamen didaktikoak diseinatzen, ikaskuntzak modu formatiboan ebaluatzen eta irakaskuntza ikasleen benetako beharretara egokituta antolatzen laguntzeko.

D — Lidergo pedagogikoa: zuzendaritza-taldeak eta Berrikuntza Arduradunak

HeziLabek Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako zuzendaritza-taldeei eta Berrikuntza Arduradunei lagunduko die, ikastetxeetan hobekuntza-, berrikuntza- eta eraldaketa-prozesu pedagogikoak artikulatu, bultzatu eta mantentzeko funtsezko eragile diren aldetik.

Laguntza hori ikastetxeen gaitasuna indartzera bideratuko da, honako hauetarako: eskuragarri dauden datu eta ebidentzien irakurketa pedagogiko partekatua egiteko, lehentasuneko beharrak identifikatzeko, hobekuntza-helburu zehatz, ebaluagarri eta testuingurukoak definitzeko, eta helburu horiek irakasleen prestakuntzarekin, ikastetxearen ohiko plangintzarekin eta erabaki metodologiko nahiz antolamendukoekin lotzeko.

Era berean, HeziLabek honakoak bultzatuko ditu: zuzendaritza-taldeak eta Berrikuntza Arduradunek ebidentzietan oinarritutako hobekuntza-prozesuak gidatu ahal izatea, erabaki pedagogiko ondo oinarritutako hartzea, garatutako jardueren jarraipen sistematikoa egitea eta horiek irakaskuntza-praktiketan, ikastetxearen antolaketan eta ikasleen ikaskuntza eta konpetentzietan duten eragina ebaluatzea.

Berrikuntza Arduradunak ez dira prestakuntzaren hartzaile huts gisa ulertuko, baizik eta ikastetxearen berrikuntza- eta hobekuntza-prozesuak koordinatzeko, dinamizatzeko, laguntzeko eta jarraipena emateko funtsezko figura gisa, zuzendaritza-taldearekin eta irakasle-taldeekin lankidetzan. Haien funtzioa, lotuta egongo da bereziki, prestakuntza-prozesuetan landutako praktikak ohiko ikasgelan

modu iraunkorrean integratzen laguntzearekin, akordio pedagogiko partekatuak sustatzearekin eta lankidetzak profesionala eta praktikaren gaineko hausnarketa bateratuko kulturak finkatzen laguntzearekin.

Esparru horretan, HeziLabek lidergo pedagogiko partekatua, irakasleen koordinazioa, kideen arteko bidelaguntza eta ikastetxeek bultzatutako hobekuntzen jasangarritasunaren mesederako antolaketa-egiturak eraikitzea sustatuko duten jarduerak bultzatuko ditu.

Era berean, zuzendaritza-taldeei eta Berrikuntza Arduradunei ematen zaien bidelaguntzak pixkanaka garatutako jardueren aplikazio praktikoa eta hezkuntza-eragina aztertzeak estrategiak eta tresnak integratuko ditu, Hori horrela ikastetxeek proiektu edo prestakuntza-prozesuetako parte-hartzea ez ezik, ikasgelako praktiketan, ikasleei emandako hezkuntza-erantzunean eta ikaskuntzen hobekuntzan sortutako aldaketak ere baloratu ahal izango dituzte.

E — HeziLaben zeharkako begiradak

HeziLabek bultzatutako ekimenek, zeharkako begirada komun batzuk txertatuko dituzte, Bigarren Hezkuntzan garatutako proiektuen kalitatea, koherentzia, irisgarritasuna, jarrai-pena eta jasangarritasuna bermatzeko.

Begirada horien artean honako hauek egongo dira: **Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala eta hezkuntza-inklusioa**; **ebaluazio hezitzailea eta formatiboa** (EKHA bezalako tresna komun erabilera barne, hala dagokionean); **konpetentzia digitala**, **adimen artifiziala** eta alfabetatze digitala; **jasangarritasuna** eta konpetentzia ekosoziala; **eTwinning** eta ikaskuntza-esperientzien nazioartekotzea; eta **materialen** eta Baliabide Hezitzaile Irekien (BHI) **lanketa**, didaktika-materialak sortzeko, berrikusteko, baliozkotzeko, argitaratzeko eta zabaltzeko zeharkako lerro gisa ulertuta.

Era berean, HeziLabek zeharka bultzatuko du Eskola Adimentsua programaren oinarrien garapena, bereziki pentsamendu konputazionala, programazioa eta robotika hezitzailea, arazoak ebaztea, arrazoiketa, sormena, informazioa ulertu eta antolatzea, alfabetatze digitala eta multimodala, modelizazioa, esperimendazioa eta ikasleen konpetentzien garapena sustatzera bideratutako tresna gisa, ikaskuntzako arlo eta eremu desberdinetan.

Eremu honetan, HeziLabek progresiboki sustatuko du **Baliabide Hezitzaile Irekiak (BHI)** egitea: berrerabilgarriak, moldagarriak eta partekatutako modukoak, konpetentzien curriculumarekin, ebaluazio hezitzailearekin, hezkuntza-inklusioarekin eta ikastetxeen hobekuntza-lehentasunekin bat. Era berean, **Amarauna** plataformaren erabilera bultzatuko du didaktika-materialak gordetzeko, ordenatzeko eta partekatutako erreferentziazko gune gisa, eta **eXeLearning** bezalako tresnen erabilera progresiboan aurrera egingo du, baliabide digital irisgarri, egituratu eta berrerabilgarriak sortzeko.

F — Zehaztapena, jarraipena eta ebaluazioa

Proiektu edo programa bakoitzaren zehaztapena, bai eta parte hartzeak baldintzak, baliabideen esleipena, prestakuntza, bidelaguntza, jarraipena eta ebaluazioa ere, dagozkion argibide, deialdi, ebazpen edo dokumentu tekniko bidez ezarriko dira.

Nolanahi ere, eta Hobekuntza-Estrategia Integralarekin koherentzian, HeziLabek bultzatutako jardueretik ikastetxearen hobekuntza-lehentasunekin lotuta egon beharko dute, haren ohiko plangintzan txertatu, eta irakaskuntza-praktikan eta ikasleen ikaskuntzan duten eragina baloratzeko jarraipen-mekanismoak aurreikusi beharko dituzte.

3.5.2. HEZI+ proiektua

Hezi+ hezkuntza-berrikuntza eta hobekuntzarako proiektua 2026-27 ikasturtean jarriko da martxan, eta bi ikasturteko iraupena izango du. Proiektua Ikaskuntzaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzaren behin betiko Ebazpenean ezarritakoaren arabera garatuko da, zeinen bidez, 2026-2027 eta 2027-2028 ikasturteetan ikastetxe publikoetan Hezi+ proiektua diseinatu, garatu, jarraitu eta ebaluatzeko jarraibideak ezartzen baitira.

Hezi+ proiektuaren helburua hezkuntza-erakundeak hobetzea eta eskola-ekitate eta kohesioa sustatzea da, birruntolaketapedagogiko eta tenporal baten bidez, honek ikasteko espazioak, denborak eta moduak zabaltzeaz gain, ingurunearekiko nahiz ikastetxearekiko lotura afektibo eta soziala sustatu ditzan.

3.5.3. Eremuen arabeko lana DBHko 1. eta 2. mailetan

DBHko 1. eta 2. mailetan eremuka lan egitea da Hezkuntza Sailaren lerro estrategikoetako bat, curriculumaren antolaketa, kompetentziekin lotuago, diziplinartekoago eta inklusiboago baterantz aurrera egiteko. Erreferentziazko dokumentua DBHko 1. eta 2. mailetan arlokako lana ezartzeko Markoa izango da.

2026-2027 ikasturtean zehar, aurretiazko prozesua garatuko da, hala eskatzen duten ikastetxeak 2027-2028 ikasturtean ofizialki eremuka lanean hasi ahal daitezen. 2026-2027 ikasturte horretan, ikastetxeek beren egoera aztertu, beharrezko erabaki pedagogiko eta antolamendukoak hartu, baliozkotze-eskaera prestatu eta lehen hiruhilekoa amaitu baino lehen aurkeztu beharko dute. Hezkuntza Sailak aurrematrikula hasi baino lehen ebatziko ditu eskaerak; horrela, baliozkotzea aldekoa bada, ikastetxeak baimendutako eremuka

edo arloak ofizialki eskaini ahal izango ditu hurrengo ikasturterako, eta honen berri familiei zein hezkuntza-komunitateari argiro eman.

Ofizialki eremuka lan egiteak esan nahi du ikastetxeak Hezkuntza Sailak baliozkotutako arlo bat edo biak bere hezkuntza-eskaintzara gehitzen dituela esan nahi du. Kasu horretan, ikasleek zuzenean dagokien eremuan matrikulatuko dira, eta horrela integratutako irakasgaiak ez dira irakasgai independente gisa agertuko hezkuntza-aplikazioetan. Ebaluazioa zein kalifikazioa modu bakarrean eta integratuan egiten dira arlo horri dagokionez.

Berrikuntza gisa, Hezkuntza Sailak zehaztu egin du zein eremu aitortu ahal izango diren ofizialki. Honako hauek izango dira:

- **Zientzia eta matematika eremua: Natura Zientziak eta Matematika** irakasgaiek osatua.
- **Gizarte eta hizkuntza eremua: Geografia eta Historia** irakasgaiek eta **Euskal Hizkuntza eta Literatura** eta/edo **Gaztelania eta Literatura** irakasgaiek osatua.

Hezkuntza Sailak bi eremu ofizial horien curriculum integratua jarriko du ikastetxe guztien eskura. Curriculum-proposamen horretan oinarrituta, ikastetxeek arlo bat edo biak ofizialki aitorzea eskatu ahal izango dute **2027-2028** ikasturterako.

Ezarpen ofiziala, oro har, eskaera egiten duen ikastetxeko **DBHko 1. mailako** talde guztietan hasiko da. Ondoren, **DBHko 2. mailan** jarraitutasuna bermatu beharko da, baliozkotutako plangintzaren eta bi ikasturteen arteko curriculum-koherentziaren arabera.

Baliozkotze ofiziala eskatzeko prozedura **Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak** garatuko du, **Ikasketa Antolamendurako Zerbitzua** baliatuta, **2026-2027** ikasturteko lehen hiruhilekoan argitaratzea aurreikusten den deialdi espezifiko baten bidez. Deialdi horretan zehaztuko dira epeak, ikastetxeek aurkeztu beharreko dokumentazioa, proposamenak aztertze eta baliozkotzeko irizpideak, bai eta ebazpen-prozedura ere.

Araudi honek, aitorpen ofizialarekin batera, ikastetxeek arlo propio ez-ofizialak gaitzea ahalbidezen du, eta diziplinarteko proiektuak, ikaskuntza-egoera partekatuak, irakasgaien arteko proposamen globalizatuak edo ikaskuntza integratuagoa eta esanguratsuagoa errazten duten beste esperientzia metodologiko batzuk

garatzea. Praktika horiek ikastetxearen hobekuntza pedagogikoko ibilbidearen parte dira, nahiz eta ofizialki baliozkotutako arlo baten ondorio administratiborik ez izan matrikulazioan, ebaluazioan eta kalifikazioan. Bestalde, diziplinarteko lan horrek geroko garapena ere izan dezake ikastetxeetan, hurrengo ziklo eta etapetan.

HeziLaben gaitutako zerbitzuen bidez Hezkuntza Sailak bidelaguntza emateko duen bide nagusia **Eremuak Lantzen PKPn** parte hartzea izango da. Praktika-komunitate honek helburu bikoitza izango du: batetik, arlo baten edo biren baliozkotze ofizialerako eskaera prestatu nahi duten ikastetxeei laguntzea; eta, bestetik, ikastetxe guztiei laguntzea aurrera egiten diziplinarteko lan-modu konpetentzial eta inklusiboetarako bide metodologikoan, nahiz eta onarpen ofiziala eskatu ez.

Beraz, **Eremuak Lantzen PKP** ikaskuntza-komunitate partekatu gisa diseinatu da, esperientziak hausnartzeko, kontrastatzeko, materialak diseinatzeko, ikastetxearen antolaketa berrikusteko eta ikasgelako praktikak progresiboki hobetzeko.

HeziLabek bere urteko prestakuntza-eskaintzan jakinaraziko ditu ikaskuntza-komunitate honetan aurreikusitako bidelaguntza eta prestakuntza, eta baita eskuratzeko baldintzak ere.

3.5.4. Curriculum Aniztasuneko Programa (CA)

Antolaketaren, sarbidearen, tutoretzaren, ebaluazioaren eta jarraipenaren esparru osoa ezagutzeko, ikusi [2025eko azaroaren 14ko Agindua](#).

Curriculum-aniztasuneko programak aniztasunari erantzuteko neurri bat dira, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren edo laugarren mailan eskolatuta, ikaskuntza-zailtasun nabariak dituzten ikasleei zuzenduta (ez dira sartzen ikaskuntzan ahaleginik ezak eragindako arazoak). Haien helburua ikasle horiei Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua lortzen laguntzea da, metodologia espezifiko batez baliatuta.

Curriculum-aniztasuneko proiektuak garatzen dituzten ikastetxeek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- ⇒ Gutxienez 8 eta gehienez 15 ikasle izatea, ondorenezahaztenden profilarekin: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren maila amaitu ondoren hirugarren mailara igarotzeko moduan ez dauden ikasleak, baldin eta irakasle-taldeak uste badu ikasturte berean beste urtebetez egoteak ez duela bere bilakaera akademikoa erraztuko.
- ⇒ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila amaitu ondoren eta aurreko paragrafoan adierazitako egoeran dauden ikasleak programaren lehen urterako proposatu ahal izango dira.
- ⇒ Salbuespen gisa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren maila amaitzean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzeko moduan ez dauden ikasleak proposatu ahal izango dira programarako, baldin eta irakasle-taldeak uste badu neurri horrek titulua lortzeko aukera emango diela aurreikusitako iraupen-mugak gainditu gabe (salbuespenez, 19 urtera arte).

⇒ Ikastetxeko zuzendaritzak ziurtatuko du programansartzeko proposatutako ikasleguztiek ebaluazio akademikoa, psikopedagogikoa eta Orientazio Sailaren dagokion txostena dutela.

⇒ Ikastetxeko zuzendaritzak konpromisoa hartzen du programan sartu diren ikasleen gurasoei, edo legezko tutoreei informazioa emateko eta entzuteko.

⇒ Programa horietarako proposatzen diren ikasle-kopuruak ezin izango du, inola ere, DBHko 3 eta 4 mailan matrikulatutako ikasle guztien %15 gainditu. Gehienez ere bi talde baimendu egongo dira salbu eta aipatutako mailetan 300 ikasle baino gehiago matrikulatuta dituzten ikastetxeetan.

Aniztasunerako eta Inklusiorako Zuzendaritzak urtero proposatuko du zein ikastetxek izango duten Curriculum Aniztasuneko Programa (CA). Baliabide hori zehazteko, kontuan hartuko dira eremu horretan dauden Curriculum Aniztasuneko Programaren (CA) eskaintza, programaren egungo ikasleak, ikastetxearen Hezkuntza Konplexutasunaren Indizea (HKI) eta ikasle kopuruari buruzko irizpideak.

3.6.

Ebaluazio diagnostikoa eta Unibertsitatera Sartzeko Proba (USP-USaP)

Kanpo-ebaluazioa funtsezko tresna da euskal hezkuntza-sistema aztertzeko eta hobetzeko. [77/2023 Dekretuaren 41. artikulua](#) ezartzen duen bezala, ebaluazio diagnostikoak Hezkuntza Sailaren eta ikastetxeen ardura partekatua dira. Hezkuntza-jardunari buruz hausnartzeko eta ikasleen arrakasta eta ekitatea bultzatuko duten erabakiak hartzeko aukera eskaintzen dute.

Testuinguru honetan, Hezkuntza Sailarentzat estrategikoa da Unibertsitaterako Sartzeko Proba (USP-USaP), Batxilergoko curriculum-dekretuan ezarritako konpetentzien eredura egokitzeko prozesuan dagoena. Proba hau etapa horretan konpetentziekin lotuago dagoen eredu baterako palanka gisa ikusten da, betiere Hobekuntza-Estrategia Integralarekin eta unibertsitatera sartzeko proba arautzen duen araudiarekin koherentea izanik.

3.6.1. Etapa amaierako 2026ko eta 2028ko diagnostiko-ebaluazioa

2025-2026 ikasturtean, etapa amaierako Ebaluazio Diagnostikoa (ED26) egin zen DBHko 4. mailan, lagin izaerakoa izan zena. Irailean, parte hartu duten ikastetxeek ikastetxeko emaitzak jasoko dituzte; emaitza horiek zientzia-konpetentzia, matematika-konpetentzia eta hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia (euskaraz eta gaztelaniaz) jasoko dituzte.

Ebaluazio honek aukera ematen du ikasleek etapa amaitzean duten konpetentzia-maila balioesteko eta informazio garrantzitsua emateko, hautatutako ikastetxeek ED25aren ondorioz planifikatutako hobekuntza-ekintzak berrikusi, doitu edo indartu ditzaten, ebidentzietan oinarritutako etengabeko hobekuntzaren kultura finkatuz.

Irailean eta urrian, edizio honetan parte hartu duten ikastetxeek **emaitza horiek aztertu** beharko dituzte, HeziLaben laguntzarekin aholkularitzaren esparruan, eta Ikuskaritzaren laguntzarekin gainbegiratzearen eta bidelaguntzaren esparruan.

Azterketa horren helburua izango da:

- ⇒ Emaitzak klaustroari eta eskola-kontseiluari aurkeztea;
- ⇒ Indarguneak eta hobetzeko arloak identifikatzea;
- ⇒ Datuetan oinarritutako hobekuntza-helburuak formulatzea (ekintzak, arduradunak eta denboralizazioa barne) eta Ikastetxearen Urteko Planean (IUP) txertatzea.

Arloka lan egiten duten ikastetxeen kasuan, garrantzitsua da curriculumearen antolaketa horren ezarpenak ikastetxeko emaitzetan izan dezakeen eragina aztertzea, bai maila akademikoan, bai bizikidetzan-mailan.

Lan hori ikastetxearen ebaluazio diagnostiko-batzordeari dagokio, zeina dagoeneko eratuta baitago [ED26 Ebazpenean](#) ezarritakoaren arabera. Eta eginkizun hauek izango ditu, besteak beste:

- ⇒ Emaitzen txostenak klaustroari eta eskola-kontseiluari aurkeztea;
- ⇒ Ebaluaziotik eratorritako hobekuntza-helburuak formulatzea eta IUPen jasotzea.

Araudiak zehazten ez badu ere, ezinbestekotzat jotzen da Berrikuntza Arduradunak batzorde horretan parte hartzea. Haren presentziak bermatzen du emaitzetatik eratorritako hobekuntza-ekintzak ez direla mugatzen azaleko egokitzapen metodologikoetara edo antolamendukoetara. Aldiz, hezkuntza-hobekuntza prozesuekin eta irakasleen prestakuntzako eta garapen profesionaleko programekin lotzen direla ziurtatzen da estrategia integralarekin bat etorriz.

Era berean, **ebaluazioaren komunikazio-dimentsioa indartuko da**. Familiak eskola-kontseiluan ordezkaritza badute ere, beharrezkoa da informaziorako eta partaidetzarako bide zuzenagoak eta eraginkorrak ezartzea. ED26 Ebazpena betez, ikastetxeek mekanismoak ezarri beharko dituzte, eskola-kontseiluan emaitzei eta aurreikusitako ekintzei buruz partekatutako informazioa hezkuntza-komunitate osoarengana modu ulargarrian helarazten dela bermatzeko.

2027-2028 ikasturtean etapa amaierako dagokion ebaluazio diagnostikoa (ED28) egingo da.

3.6.2. 2027ko etapa-erdiko ebaluazio diagnostikoa

2027-2028 ikasturtean zehar, **etapa erdiko Ebaluazio Diagnostikoa** egingo da Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan, zentsu-izaerako ebaluazioa izanik ikasleentzat ondorio akademikorik ez duena. Ebaluazio horri esker, ikasleek etapa erdian duten konpetentzia-maila baloratu ahal izango da, eta hezkuntza-sistema aztertzeke eta hobekuntzara bideratutako politika publikoak zehazteko informazio garrantzitsua eman ahal izango da. Era berean, hautatutako ikastetxeek ED25aren ondorioz (eta ED26aren ondorioz, egin duten ikastetxeen kasuan) **aurreikusitako hobekuntza-ekintzak berrikusi**, doitu edo indartu ditzaten balio izango du, ebidentzietan oinarritutako etengabeko hobekuntza-kultura finkatuz.

Ebaluazio diagnostikoa aurreko ebaluazioetan sustatutako ikuspegi profesional eta pedagogiko berarekin jorratzea gomendatzen da. Ikastetxearen ebaluazio diagnostikorako batzordeak bere gain hartuko ditu beharrezko antolaketa-eginkizunak, ISEI-IVEIrekin koordinatuta.

Maila horietako ikastetxeek aukera hezitzailetzat hartu beharko dute ebaluazio hau; beraz, prozesua hiru une garrantzitsutan egituratzea gomendatzen da:

Probaren aurretik:

- ⇒ Hezkuntza-komunitate osoa (klastroa, familiak, ikasleak) informatzea eta sentsibilizatzea, ebaluazioaren helburuez, prestakuntza-balioaz eta erabilgarritasunaz.
- ⇒ Ikasleak prestatzea, haien konfiantza indartu, probaren formatua ezagutu eta haren garrantzia ulertzea sustatzen duten jardueren bidez.
- ⇒ Inplikaturako irakasleen parte-hartzea eta koordinazioa bermatzea, eta lankidetzajarrerara sustatzea.

⇒ Ikastetxearen ebaluazio diagnostikorako batzordea eratzea edo aktibatzea, eta horrek bere gain hartuko ditu beharrezko antolaketa-eginkizunak.

Proban bertan:

- ⇒ Ebaluazioaren garapena modu zorrotzean antolatzea, eta erreferentziako irakasleen presentzia eta ikasleentzako giro egokia ziurtatzea.
- ⇒ Prozesuaren jarraipena egitea, jarrerak behatzea, gorabeheren kudeatzea eta inplikaturako kanpoko eragileekiko koordinatzea barne.

Probaren ondoren:

- ⇒ Emaizak sakon aztertzea, ISEI-IVEIren txostenak ikastetxearen hausnarketa pedagogikoan integratuz.
- ⇒ Analisi horretan oinarrituta, ED25aren ondorioz planifikaturako hobekuntza-ekintzak berrikusi, egokitu edo indartzea, ebidentzietan oinarritutako etengabeko hobekuntza-kultura sendotzeako.
- ⇒ Informazioa klastroarekin eta eskola-kontseiluarekin partekatzea.

Berariazko ebazpen batek arautuko du ebaluazio horren garapen tekniko eta antolamenduzkoa, eta behar besteko aurrerapenaz argitaratuko da.

Baliabideak eta dokumentazioa

Ebaluazio diagnostikoekin lotutako informazio guztia, txostenak, material teknikoak eta analisi pedagogikoko gidak ISEI-IVEIren webgune ofizialean daude eskuragarri: <https://www.isei-ivei.euskadi.eus>

3.6.3. USaPen eraldaketa eta horrek Batxilergoan duen eragina

Unibertsitatera Sartzeko Proba (USaP) funtsezko mugaria da Batxilergoko ikasleen ibilbide akademikoan, eta haren diseinuak eragin zuzena du irakaskuntzan eta ikaskuntzan etapa honetan.

USaPen eredu berria [Batxilergoko curriculum-dekretuan](#) eta [534/2024 Errege Dekretuan](#) ezarritakoarekin koherentea den konpetentzia-ereduan oinarritzen da, eta horrek eragina du ebaluatzen diren konpetentzia-motan, azterketa-formatuetan eta ikasleen prestakuntzari eutsi behar dioten ikuspegi metodologikoetan. Eraldaketa hori ez da soilik probaren formatuaren aldaketa gisa ulertu behar, baizik eta **Batxilergoari egungo erronkekin bat datorren konpetentzia-ikuspegia** emateko aukera gisa.

Hobekuntza-Estrategia Integralarekin koherentzian ikastetxeek honako hauek egitea sustatuko da:

- ⇒ Batxilergoko ebaluazio-metodologiak eta -sistemak berrikusi, konpetentzia-ikuspegi batekin lerrokatzeko, eta ez soilik ikuspegi erreproduktiboarekin.
- ⇒ Praktika didaktiko integratuak sustatzea, problemak ebaztean, pentsamendu kritikoan eta jakintza-transferentzian oinarrituak.
- ⇒ Ikasleekin batera, ikasketa-estrategiak eta autonomia pertsonala garatzen laguntzea, USaPi eta etorkizuneko bizitza akademiko eta profesionalari arrakastaz aurre egin ahalizateko.
- ⇒ Irakaskuntza-prestakuntzako dinamiketan USaPetik eratorritako irizpide eta orientabide berriak sartzea, Hezkuntza Sailak eskaintzen dituen baliabideekin koordinatuta.

USaPen emaitzen hezkuntza-erabilera ikastetxeetan

Unibertsitatera sartzeko mekanismoa izateaz gain, Batxilergoko ikastetxeentzat balio handiko kanpo-informazioaren iturria da USaP. Ikasleek lortutako emaitzek aukera ematen dute emandako irakaskuntzen eta unibertsitate-ingurunearen eskakizunen arteko lerrokatze-maila identifikatzeko.

Ikastetxeek EHUtik beren ikasleek USaPen lortutako emaitza metatuen txosten bat jasotzen dute. Gomendagarria da emaitza horien azterketa irailean eta urrian egiten den hausnarketa pedagogikoko prozesuan txertatzea, kanpoko ebaluazioko beste datu batzuekin batera (hala nola DBHko diagnostiko-txostenak). Hausnarketa honetan lagun diezaieke:

- ⇒ Batxilergoko kalifikazioen eta USaPeko errendimenduaren arteko balizko desorekak detektatzen.
- ⇒ Emaitza nabarmen baxuak dituzten jakintzagaiak identifikatzen.
- ⇒ Aplikatutako metodologiaren eragina baloratzeko.
- ⇒ Hobekuntza-helburu eta -ekintza zehatzak definitzen.

Lan hori batzorde pedagogikoetatik (edo ikastetxeen antzeko egituretatik) koordinatu behar da, Berrikuntza Arduradunaren parte-hartze aktiboarekin, eta IUPen islatuta geratu behar da. Informazio gehiago: [EHUraiko sarbidea eta onarpena \(USaP\)](#)

Hezkuntza-sistemaren bilakaerak Batxilergoa funtsezko etapatzat hartzen du ikasleen autonomia eta konpetentzia-profila indartzeko. Helburu nagusia ez da Unibertsitatera Sartzeko Proba (USaP)

gainditzea soilik, baizik eta gaur egungo erronkekin eta Batxilergoko curriculum Dekretuarekin lerratutako irakaskuntza- eta ikaskuntza-eredu bat finkatzea.

Konpetentzietan oinarritutako eredu baterako batxilergoaren eraldaketa honek USaPi eragiten dio, etaparen mugarri nagusia baita; era berean, probaren diseinuak zuzeneko eragina du ikasleen prestakuntzaren oinarri izan behar duten ikuspegi metodologikoetan eta irakaskuntza- zein ikaskuntza-praktiketan. Eraldaketa hori, beraz, Batxilergoari gaur egungo erronkekin bat datorren konpetentzia-ikuspegia emateko aukera gisa ulertu behar da.

Hobekuntza-estrategia Integralarekin koherentzian, ikastetxeek honako hauek egitea sustatuko da:

- ⇒ Batxilergoko metodologiak, didaktika espezifikoak eta ebaluazio-sistemak berrikustea, konpetentzia-ikuspegi batera lerratzeko eta ez soilik erreproduktzio-ikuspegi batera.
- ⇒ Informazioaren kudeaketan, pentsamendu kritiko eta sormenezkoan, arazo konplexuen ebazpenean, lankidetzan eta ebaluazio hezitzailean oinarritutako praktika metodologikoak sustatzea.
- ⇒ Irakasleen prestakuntzako eta praktika profesionaleko dinamiketan USaPetik eratorritako irizpide eta orientazio berriak txertatzea, Hezkuntza Sailak eskainitako baliabideekin koordinatuta.

Hezkuntza Sailaren laguntza eraldaketa metodologikoari

Eraldaketa hori errazteko, Hezkuntza Sailak maila anitzeko laguntza-estrategia bat jarriko du abian 2026-2027 ikasturtetik aurrera.

Makro mailan:

⇒ Batzorde tekniko bat eratzea, honako hauen diseinua gidatzeko:

- USaPen konpetentzia-ikuspegiari egokitutako eta didaktika espezifikoekin lerratutako materialak eta ebaluazio-ereduak.
- Ikuspegi berriarekin lerratuta, arlo desberdinetako didaktika espezifikoak garatuko dituzten prestakuntza-ekintza puntualak, modalitate guztietarako komunak diren irakasgaiak lehenetsiz (Gaztelania eta Literatura II, Euskara eta Literatura II, Espainiako Historia / Filosofiaren Historia eta Lehenengo Atzerriko Hizkuntza II).
- Metodologia aktiboetan, ebaluazio hezitzailean eta ikaskuntza-egoeren diseinuan zentratutako autoformazio-programak.

Meso mailan (ikastetxean):

- ⇒ USaPen lortutako emaitzen analisia eta hobekuntza-helburuen zehaztapena IUPen.
- ⇒ Berrikuntza Arduradunak edo, hala badagokio, BODI figurak irakasle-taldeei laguntzea metodologiak arian-arian egokitzeke.
- ⇒ Komunitate profesionalak sortzeko laguntza praktika egokiak partekatzeke.

Mikro mailan (ikasgela):

Hizkuntzen, matematikaren eta zientzien arloetan informazioaren kudeaketan, pentsamendu kritiko eta sortzailean, arazo konplexuen ebazpenean, lankidetzan eta ebaluazio hezitzaileko estrategietan oinarritutako metodologia-praktikak aztertu eta garatzeko programa pilotua.

3.7. Erlijioa

Erljio ofizialen eskaintza nahitaezkoa da ikaste-txeentzat, eta borondatezkoa ikasleentzat. Ondorioz, familiak edo legezko tutoreek onarpen-eskaeretan adieraziko dute ikasleak irakaskuntza hori jasotzea nahi duten ala ez. Erabaki hori hurrengo ikasturterako mantenduko da, berariaz kontrakoa adierazi ezean.

Ikastetxeek hurrengo ikasturteko plangintza egin aurretik, apirilean, erljio-irakaskuntzen eskaerari buruzko informazio eguneratua eman beharko dute onarpen- eta matrikula-aplikazioaren bidez.

Erljio katolikoaren irakaskuntza Egoitza Santuaren eta Espainiako Estatuaren artean sinatutako Irakaskuntzari eta Kultura-Gaiei buruzko [Akordioan](#) ezarritakora egokituko da.

Beste erljio batzuen irakaskuntza [Espainiako Estatuaren eta Espainiako Erljio Erakunde Ebanjelikoen Federazioaren](#), [Espainiako Judu Komunitateen Federazioaren](#) eta [Espainiako Batzorde Islamikoaren](#) arteko lankidetzakordioetan xedatutakoari egokituko zaio, bai eta, hala badagokio, etorkizunean beste erljio-konfesio batzuekin sinatu ahal izango diren akordioetan xedatutakoari ere.

Ikaslea
ikaskuntzaren
subjektu aktibo
gisa: inklusioa,
bizikidetza,
hezkidetza
eta ongizatea

4

4.1.

Ikasleentzako hezkuntza- erantzunaren printzipio orokorrak eta arau-esparrua

Ikasleei ematen zaien hezkuntza-erantzuna **Euskal Hezkuntzari buruzko Legearen** eta hura garatzen duen araudiaren esparruan kokatzen da, bereziki **aniztasunari erantzuteko 78/2024 Dekretuaren** esparruan, eta bat dator **Euskal Eskola Publikoaren 2025-2028 Plan Estrategikoarekin** (6. ardatza:

ekitate eta inklusioa). Esparru horretan, inklusioa euskal hezkuntza-sistemaren lerro estrategiko bat da, ikasle guztien **presentzia, parte-hartzea, aurrerapena eta ongizatea** bermatzera bideratua, arreta berezia jarritz zaurgarritasun-egoera handienean daudenei.

Eskola inklusiboaren ikuspegitik, aniztasuna balio gisa ulertzen da, eta hezkuntza-erantzuna erantzukizun partekatu gisa. Ikastetxeak ikaskuntzarako eta parte-hartzerako oztopoak identifikatu eta ezabatu beharko ditu, espektatiba handiak sustatu eta arreta prebentiboa eta pertsonalizatua ziurtatu, neurri arruntak lehenetsiz eta goiz esku hartuz.

Zuzendaritzak, irakasle-taldeekin eta orientazio-taldeekin batera, ikasleen sarbidea, iraunkortasuna eta parte-hartzea bermatuko ditu, **denborak, espazioak, taldekatzeak**, neurriak eta laguntzak modu koordinatuan antolatuz, eta, lehentasunez, **ikasgela arruntaren barruan**. Erantzuna metodologia inklusiboetan eta plangintzan oinarrituko da, **Ikaskuntza Diseinu Unibertsala (IDU)** kontuan hartuta, ikasle guztiek ekitate-baldintzetan ikas dezaten eta parte har dezaten.

78/2024 Dekretuak aniztasunari erantzuteko eredu **sistemiko, unibertsal eta prebentiboa** taxutzen du, honako hauetan oinarrituta: aniztasunaren hezkuntza-balioa, hasieratik irisgarriak eta seguruak diren inguruneak, eta hezkuntza-komunitatearen erantzukidetasuna.

Dekretuak **orientazio-taldea** indartzen du ikastetxeko egitura egonkor gisa. Talde honek irakasleei laguntzen die beharrak identifikatzen, neurriak eta laguntzak planifikatzen eta ebaluatzen, baliabideen antolaketa proposatzen eta kanpoko zerbitzuekin koordinatzen.

Hezkuntza- eta antolaketa-plangintza (ikasleen banaketa, taldekatzeak, baliabideak eta laguntzak) inklusio-ikuspegiarekin eta koordinazio profesionalarekin diseinatuko da. Zuzendaritzak, orientazio-taldearekin batera, sailaren protokoloak aplikatuko direla bermatuko du, hala dagokionean.

⇒ Programazioetan eta ikasgelako praktikan aniztasunari erantzuteko neurriak integratzea.

⇒ Neurriak eta laguntzak modu koordinatu eta kooperatiboan artikulatzea, lehentasunez testuinguru arruntan.

⇒ Hezkuntza Sailak ezarritako protokoloak aplikatzea, hala dagokionean (adibidez, gaitasun handikoentzako edo goiztiarrentzako arreta).

⇒ IDUa erreferentziatzen hartzea ikasleen irisgarritasuna eta curriculumean duten parte-hartzea planifikatzeko.

Esku-hartze eredua **neurrien** (zailtasunak prebenitzeko eta ikaskuntza errazteko antolatutako jarduerak) eta **laguntzen** (neurri horiek eraginkor egiten dituzten baliabide pertsonal, metodologiko eta materialak) bidez artikulatzen da, eta hiru maila progresibotan antolatzen dira: **unibertsalak** (ikasle guztientzat), **osagarriak** (behar espezifiko tenporal edo zehatzetarako) eta **intentsiboak** (esku-hartze espezializatua eta iraunkorra behar denean).

Neurri eta laguntza guztiak irakasle-taldeak planifikatu eta ebaluatzen ditu, orientazio-taldearen bidelaguntzarekin, eta ikastetxeko dokumentuetan integratzen dira (IHP, IUP, Aniztasunari Arreta Emateko Plana, Tutoretza-Ekintza Plana, etab.). Dekretuak **goiz esku hartzea** eta **hezkuntza-jarraitutasuna** azpimarratzen ditu, trantsizio planifikatuen, koordinazio profesionalaren eta familien inplikazioaren bidez.

Laburbilduz, aniztasunari emandako erantzuna ikastetxearen proiektu pedagogikoaren egiturazko osagaia da, eta plangintza, koordinazioa eta etengabeko hobekuntza eskatzen ditu, ikasle guztientzat kalitatezko hezkuntza inklusiboa bermatzeko.

4.2. Hezkuntza Laguntzako Berariazko Premiak (HLBP) dituzten ikasleak

HLBPak **iragankorrak edo iraunkorrak** izan daitezke, eta identifikatutako oztopo eta beharretara egokitutako erantzuna eskatzen dute, ebidentzietan oinarritutako jarraipen eta berrikuspenarekin.

Antolaketa-ondorioetarako, ikastetxeak HLBPtzat hartuko ditu, besteak beste:

- ⇒ Desgaitasun fisikoa, intelektuala edo sentsoriala.
- ⇒ Jokabidearen nahasmendu larriak.

- ⇒ Komunikazioaren eta hizkuntzaren nahasmendu larriak.
- ⇒ Heltze-atzerapena.
- ⇒ Gabeziaren Nahasmendua Hiperaktibitatearekin (AGNH).
- ⇒ Ikaskuntza-zailtasun espezifikoak.
- ⇒ Adimen-gaitasun handiak.
- ⇒ Hezkuntza-sisteman berandu sartzea edota ikaskuntza-hizkuntza ezagutza oso eskasa.
- ⇒ Gizarte- eta hezkuntza-arloko kalteberatasun-egoerak.
- ⇒ Baldintza pertsonal bereziak edo eskola-historia konplexua.
- ⇒ Neurriak ikastetxeko tresnetan erregistratu eta berrikusi (adibidez, Aniztasunari Arreta Emateko Planean, IUPen, TEPn, JPPn eta, hala dagokionean, curriculum-egokitzapen esanguratsuetan).
- ⇒ Baliabide pertsonalen berrikuspena salbuespenezko kasuetan soilik eskatzeko aukera baloratu (adibidez, laguntza-premia handia duten ikasle berriak).
- ⇒ Antolaketa eta ordutegietan beharrezkoak diren doikuntzak aurreikusi, baita aurretiazko ebaluazio psikopedagogikorik gabe ere, neurriak ikastetxearen eskumenekoak baldin badira.

Neurri eta laguntza unibertsalez baliatzeaz gain, baliteke ikasle horiek **neurri eta laguntza osagarriak eta/edo intentsiboak** behar izatea, haien beharren eta bilakaeraren arabera. Neurri horiek planifikatu eta ebaluatzea irakasle-taldeari dagokio, **orientazio-taldearen** bidelaguntzarekin, tutoreekin, familiarekin eta, hala dagokionean, beste laguntza-zerbitzu batzuekin koordinatuta.

HLBPa duten ikasleei emandako hezkuntza-erantzunak **testuinguru inklusiboetan** esku hartzea lehenetsiko du, konpetentzia pertsonalen, sozialen eta akademikoen garapena sustatuz. Horretarako, ikastetxeek eginkizun hauek bermatu behar dituzte:

- ⇒ Irakaskuntza IDUa eta metodologia inklusiboak erreferentziazat hartuta planifikatu.
- ⇒ Egoera zehatzera egokitutako arrazoizko doikuntzak eta laguntzak aplikatu.
- ⇒ Profesionalen, tutoreen orientazio-taldearen eta familien arteko koordinazioa bermatu.

Baliabideen antolaketa irizpide inklusiboekin egingo da: **laguntzak ikasgela arruntan, irakasle-talde osoaren erantzukidetasuna** eta **beharren balorazio funtzionalean** oinarritutako esleipena (ez “laguntza = orduak” baliokidetasunean). Baliabideen berrikuspenak Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak baliabide pertsonal espezifikoak esleitzeko prozedurari buruz emandako Jarraibideetan (2019) ezarritakoaren arabera eskatuko dira, behar bezala justifikatuta eta aurreikusitako kasuetan soilik.

Laburbilduz, HLBPa duten ikasleentzako arreta ez da soilik baliabideak ematean oinarritzen, **lankidetzazko plangintza pedagogikoan** eta praktiken **etengabeko hobekuntzan** baizik, **IUPen** integratutako eta **Ikastetxeko Urteko Txostenean** (IUT) berrikusitako ekintzekin, ikastetxearen Hobekuntza Estrategiarekin koherentzian.

Hurrengo azpiataletan, behar-tipologia desberdinetarako orientazio eta neurri zehatzak jasotzen dira, indarrean dagoen araudiaren arabera.

4.2.1. Hezkuntza-premia bereziak (HPB) dituzten ikasleak

HPB dituzten ikasletzat hartzen dira desgaitasun baten edo **nahaste larrien** (jokabidearenak edo komunikazioaren eta hizkuntzarenak) ondorioz **neurri eta laguntza** intentsiboak behar dituzten ikasleak, [ekainaren 18ko 78/2024 Dekretuaren](#) 9. artikulua jasotzen duen bezala. Neurri eta laguntza horiek espezializatuak, iraunkorrak eta ikasleen beharretara egokituak izan behar dute.

Hezkuntza-erantzuna ikuspegi inklusibo batetik antolatuko da, lehentasunez testuinguru arruntean gauzatuta, eta parte-hartzera, autonomiara eta garapen integralera bideratuko da. Ebaluazio psikopedagogikoan oinarrituta eta inklusiorako laguntza-aholkularitzen (BiziLab) bidelaguntzarekin, irakasle-taldeak neurri eta laguntza intentsiboak planifikatu eta berrikusiko ditu (adibidez, egokitzapenak, denboraren eta taldekatzeen antolaketa, esku-hartze espezializatuak eta baliabide pertsonalak).

Ikastetxeko zuzendaritzak erantzunaren plangintzan, jarraipenean eta ebaluazioan inplikaturako profesionalen koordinazioa eta parte-hartzea bermatuko du (tutoretza, orientazioa eta laguntza-profilak), eta inplikaturako profesional guztien aldetik esku-hartze koherentea bultzatu.

Baliabide pertsonal espezifikoaren hornidurari dagokionez, ikastetxeak ikasleen aniztasunari erantzuteko baliabideen dotazioa arautzen duen [Hezkuntza sailburuordearen 2023ko uztailaren 10eko Ebazpenean](#) ezarritakora egokituko dira. Laburbilduz:

⇒ Baliabide pertsonalak beharren **balorazio teknikoaren** eta **ikastetxearen plangintzaren** arabera esleitzen dira.

⇒ Horien erabilerak **ekitate-, eraginkortasun- eta**

antolaketa-malgutasuneko irizpideei erantzun behar die, eta diagnostikoaren arabera esleipen automatikoak saihestu.

⇒ Laguntzen kudeaketa pedagogikoa **zuzendaritza-taldeari** dagokio; baliabideen berrikuspenak **modu arrazoituan** eskatuko dira, barne-berrantolaketa baloratu ondoren eta orientazio-txostenarekin.

Ikasturtean zehar, ikasleen egoeran gertatzen diren aldaketek ez dute baliabideen berrikuspen automatikorik ekarriko; aparteko kasuetan, ikastetxeak **arrazoituta** beharko du eta hartutako **barne-berrantolatze** neurriak dokumentatu beharko ditu.

Era berean, ikastetxeak erantzunerako beharrezko antolaketa (ordutegiak, programazioak eta koordinazioa) ziurtatu beharko du, eta eskolatze-aldaketa garrantzitsuak jakinarazi beharko ditu baliabideak modu eraginkorrean kudeatzeko.

Kontuan hartu beharreko alderdi espezifikoak:

⇒ Komunikazioa eta hizkuntza: [ikastetxeak komunikazio-sistema areagotzaile eta alternatiboak \(KSHA\) ezartzeko Protokoloa](#) aplikatu beharko du, inplikaturako profesionalen eta familiaren arteko esku-hartze koordinatua bermatu.

⇒ **Entzumen-desgaitasuna:** hezkuntza-erantzunerako [orientabide espezifikoak](#) daude eskuragarri, antolaketa-gomendioak eta egokitzeko orientabideak barne.

⇒ Jokabide-nahasmendu larriak: ikastetxe bakoitzak Eskola Kontseiluak onartutako [jarduera-protokoloa](#) bat izan behar du. Beharrezkoa izanez gero, banakako plan batekin

(JPP) osatu ahal izango da, inklusiorako laguntza-aholkularitzaren (BiziLab) bidelaguntzarekin.

Protokoloak testuingurura egokituta egon behar du eta ikastetxearen esparru orokorra eta, beharrezkoa denean, Jarduera Plan Pertsonalizatua (JPP) jaso behar ditu. Eskuhartze faseak eta hezkuntza- eta babes-estrategiak jasoko ditu, segurtasuna eta inklusio-ikuspegia lehenetsiz.

⇒ Hezkuntzaren eta Osasun Mentalaren arteko lankidetzaren esparru orokorra (2018) aplikatu behar da. Esparru horrek osasun- eta gizarte-zerbitzuekin partekatutako prozedurak arautzen ditu: bideratzea, informazioa trukitzea,

koordinazio profesionala eta familientzako laguntza integrala.

⇒ Ikusmen-desgaitasuna: ikastetxeak **egokitu beharreko materialak** (braillea, audioa, etab.) ematea aurreikusi beharko du. Testuen kasuan, zerrenda osoa behar **adinako aurretiaz** ematea gomendatzen da (ahal dela maiatza baino lehen).

Orientazio horiek ikastetxean **planifikatutako erantzun koordinatu eta ebaluagarri** bihurtu behar dira, HLBPa duten ikasleei arreta emateko esparru orokorrarekin koherentzia.

4.2.2. Arreta-nahasmendua edo ikasteko zailtasun espezifikoak dituzten ikasleak

78/2024 Dekretuarekin bat etorritik, AGNHa eta/edo IZEa duten ikasleentzako hezkuntza-erantzuna ikuspegi inklusibo, prebentibo eta ebidentzietan oinarritutako batetik antolatuko da.

Arreta-gabezia nahasmendua hiperaktibitatearekin (AGNH) eta/edo **ikasteko zailtasun espezifikoak (IZE)** dituzten ikasleek errendimenduari eta aurrerapenari eragiten dioten oztopo iraunkorrak aurki ditzakete, batez ere tresna-trebetasunetan (irakurmena, idazketa eta kalkulua/arraioibide matematikoa). Horrek hezkuntza-erantzun planifikatua, irakasgaien artean koherentea eta haien beharretara egokitu eskatzen du.

AGNHan **arreta-gabeziako** eta/edo **hiperaktibitate-inpulsibotasuneko** ereduak gailentzen da, eta horrek eskolaren, pertsonaren eta gizartearen funtzionamendua oztopatzen du. IZEa duten ikasleen kasuan ikaskuntza-prozesu espezifikoetan (adibidez, irakurketa, idazketa edo matematika) zailtasun nabarmenak eta iraunkorrak gailentzen

dira, hezkuntza-aukera faltagatik azaldu ezin direnak.

Irakasleek aurretik identifikatu gabeko AGNHaren eta/edo IZEaren zantzu iraunkorrak hautematen dituztenean, ikastetxeko **orientatzaileari** jakinaraziko diote, **ebaluazio psikopedagogikoa** baloratzeko eta, hala badagokio, **Jarduera Plan Pertsonalizatua (JPP)** aktibatzeke. Prozesu horretan, hala dagokionean, inklusiorako laguntza-aholkularitzaren laguntza izango da.

Adostutako neurriak (metodologikoak, antolamendukoak eta ebaluaziokoak) modu **koherentean** aplikatu beharko dituzte ikaslearekin esku hartzen duten irakasle guztiek, eta, hala dagokionean, inklusioaren arloko profesionalen laguntzekin osatu ahal izango dira.

Baliabide didaktikoak, orientabideak eta laguntza-material eguneratuak InklusioGunea (IZE) atarian daude eskuragarri.

4.2.3. Adimen-gaitasun handiko ikasleak

78/2024 Dekretuarekin bat etorri, gaitasun intelektual handiko ikasleentzako hezkuntza-erantzuna haien parte-hartzera eta aurrerapenera bideratuko da, neurri egokitu eta berrikusgarriekin.

Adimen-gaitasun handiko ikasletzat hartzen dira ebaluazio psikopedagogikoaren ondoren garapen-arlo batean edo batzuetan batez bestekoa baino potentzial nabarmen handiagoa erakusten dutenak, eta horrek hezkuntza-premia espezifikoak sor ditzake. Hezkuntza-erantzunaren helburua haien **garapen integrala** sustatzea eta desdoitzeak (adibidez, desmotibazioa) prebenitzea da.

Hezkuntza-erantzuna irakasle-taldeak planifikatuko du orientazio-taldearen bidelaguntzarekin, eta, kasuaren arabera, **curriculum-a-berastea, egokitzapen metodologikoak, taldekatze malguak** eta, hala dagokionean, eskolatze-aldia **malgutzea** jasoko ditu. Prozesuan familien eta ikasleen parte-hartzea sustatuko da.

Ikastetxeak gaitasun handiko ikasleak identifikatzen eta hezkuntza-erantzuneko protokolo bat ezartzen jarraituko du. Protokolo hori Lehen Hezkuntzako (1., 2. eta 6. mailak) eta Bigarren Hezkuntzako (DBHko 1. maila) ikasleei zuzenduta dago, eta nahitaez aplikatu behar da ezarritako baldintzetan:

1 — fasea: Baheketa – Lehen Hezkuntzako 6. mailako tutoreek maiatzean galdetegi bat bete behar dute maila horretan eskolatutako ikasleei buruz, AGH web-aplikazioaren bidez.

2 — fasea: Detekzio espezifikoa – Bigarren fasera igarotzen diren ikasleak urrian erregistratzen dira AGH web-aplikazioan. Fase honetan, orientatzaileek zuzeneko behaketak, galdetegi espezifikoak, detekziorako proba osagarriak eta familiekin elkarrizketak egiten dituzte. Detekzio espezifikoa urrian eta azaroan egiten da. Horrekin lortutako informazioak profil indibidual bat sortzen laguntzen du.

3 — fasea: Ebaluazio psikopedagogikoa – Abenduan eta urtarrilean, orientatzaileek, inklusiorako laguntza-aholkularitzarekin batera, ebaluazio psikopedagogikoa egiten diete bigarren fasean zehaztutako ikasleei, eta emaitzak familiei jakinarazi eta dizkiete, hezkuntza-erantzun bat proposatuko die.

Hala ere, ikasturteko edozein mailatan edo unetan zantzuak hautematen badira, dagokion balorazio-prozesuari ekin beharko zaio.

Protokoloari, orientazioari, baliabideei eta praktika onei buruzko informazioa InklusioGunean dago eskuragarri, [adimen-gaitasun handiko](#) atalean.

4.2.4. Ikasleak ohiko onarpen-prozesutik kanpo eskolatzea

78/2024 Dekretuarekin bat etorritz, onarpen-prozesu arruntetik kanpoko eskolatzea **ekitatea, inklusioa eta hezkuntza-erantzuna** lehen unetik bermatuz kudeatuko da.

Prozedura hori amaitu ondoren egiten dena hartzen da onarpen-prozesu arruntetik kanpoko eskolatzetzat, ikasturtean zehar sartzeari edo aparteko egoerengatik. Prozesu hori 2022ko abenduaren 27ko Aginduak arautzen du; Agindu horrek eskolatzeko-oinarriak eta lurraldeko Eskolatzeko Batzordeen eginkizunak ezartzen ditu.

Kasu horietan, ikastetxeak **harrera** antolatuko du eta, hala dagokionean, aniztasunari emandako

erantzuna aktibatuko du lehen unetik. Ikasleak berandu sartzeari edo ikaskuntza-hizkuntzari lotutako hezkuntza-laguntzako beharrak baditu, beharrezko laguntzak planifikatuko dira (adibidez, **PRL** eta, Lehen Hezkuntzako 3. mailatik DBHko 4. mailara arte, **EUSLE**), **Eskolatzeko Batzordearekin** eta, hala dagokionean, **Hezkuntza Ikuskaritzarekin** eta **orientazio-taldearekin** koordinatuta.

Kudeaketarako prozedurak eta tresnak Sailaren sistemetan eta InklusioGunean daude eskuragarri; bertan, epez kanpo sartzeko ikasleentzako orientazio zehatzak jasotzen dira.

4.2.5. Baldintza pertsonal bereziak edo eskola-historiakoak dituzten ikasleak

Abenduaren 20ko 266/2006 Dekretua oinarri, **Ospitaleko** eta etxeko hezkuntza arretarako eta arreta terapeutiko-hezigarriko lurralde zentroak sortu ziren. Zentro horien helburua da **medikuak aginduta** (ospitaleratzea, etxeko ospitaleratzea edo programa terapeutiko-hezkuntza batean sartzea) bere ikastetxera aldi baterako joan ezin diren ikasleei hezkuntza-laguntza bermatzea.

Laguntza ospitale-eremuan: EAEko zenbait ospitaletan dauden ospitale-geletan eskaintzen da; ospitale-gelako irakasleak erreferentziako ikastetxeko tutoretzarekin koordinatzen dira.

⇒ **Laguntza etxe-eremuan:** irakasleek eskaintzen dute ikaslearen etxean, medikuak aginduta ikastetxera joan ezin denean; ospitaleratzerik badago, arreta koordinatu egiten da jarraitutasuna bermatzeko.

Bi kasuetan, 266/2006 Dekretuaren 22. artikuluari jarraituz, hezkuntza-arreta lurralde-zentroaren eta erreferentziako ikastetxearen arteko **koordinazioaren** bidez antolatuko da, esku-hartze bateratua bermatzeko eta, hala dagokionean, ikasleak bere eskola-ingurunera **itzultzea** planifikatzeko.

Ikastetxeetako zuzendaritzek 1998ko uztailaren 30eko Aginduaren 35. artikuluan aurreikusitako prozedura jarraituko dute egoera horietan hezkuntza-erantzuna antolatzeko.

⇒ **Laguntza terapeutiko-hezitzailea:** Osakidetza Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko Zerbitzuarekin lankidetzan garatzen da, indarrean dagoen hitzarmenaren arabera. Ikasleak tratamendu intentsibo behar duenean, OETHren programa terapeutiko-hezitzailean sartzea balora daiteke, inklusioa laguntzeko aholkularitzaren (BIZILAB) eta dagozkion osasun-zerbitzuen parte-hartzearekin, ezarritako prozeduraren arabera:

- **Inklusio-/bazterketa-irizpideak** eta hezkuntza- eta osasun-arloko baterako balorazioa aintzat hartzea.
- Familiaren edo ordezkari legalen **baimena** jasotzea.
- **W67** aplikazioan eskatutako **dokumentazioa** kudeatzea (txostenak eta proposamenak), tramitaziorako eta jarraipenerako.

Prozesua amaitzeko, Balorazio Batzordeak **ikaslea onartu ala ez ebatziko du**. Onartua izanez gero, zentro terapeutikoko eskolatzea **aldi baterakoa** izango da, **epe jakin baterako**, eta **gehienez ikasturte osoko iraupena izango du**.

Ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxeak eta OETH-HDTE ikastetxeak koordinazio- eta jarraipen-bideak ezarri beharko dituzte. Halaber, erreferentziako ikastetxera itzultzeko jarraitu beharreko estrategia adostu eta planifikatu beharko dute.

4.3.

Hezkuntza
Laguntzako
Berariazko Premiak
dituzten ikasleen
erantzuna
antolatzea eta
kudeatzea

—

4.3.1. Ikasleen informazioa biltzea eta antolatzea

Hezkuntza sailburuordearen [2020ko uztailaren 10eko Ebazpenari](#) jarraituz, diru publiko sustatutako ikastetxeek **HLBPa** duten ikasleen informazioa **eguneratuta** eduki beharko dute, **W67** aplikazioan erregistratuz, eta hezkuntza-eskuhartzea **Jarduera Plan Pertsonalizatu (JPP)** bat erabilia bideratu beharko dute, hala dagokionean.

JPPa tutoreak eta **irakasle-taldeak** prestatuko dute, **orientazio-taldearen** eta, hala dagokionean, **inklusionarako laguntza-aholkularitzaren**

(BiziLab) laguntzarekin. Neurri pedagogikoak eta antolamenduzkoak, horien egutegia eta jarraipen-zein berrikuspen-irizpideak jasoko ditu.

JPParen neurriak aplikatu eta berrikusi ondoren, horiek nahikoak ez direla egiaztatzen bada, ikastetxeak **ebaluazio psikopedagogiko** baten eskaera **baloratzea** baloratu ahal izango du, 4.3.2 atalean adierazitakoaren arabera, hezkuntza-erantzuna doitzeko.

4.3.2. Inklusioa laguntzeko aholkularitzei egindako ebaluazio psikopedagogikorako eskaera

78/2024 Dekretuarekin bat etorritik, **ebaluazio psikopedagogikoa** egingo da neurri arruntak eta JPPa aplikatu ondoren ikaslearen sarbidea, parte-hartzea edo aurrerabidea arriskuan jartzen duten oztopoek dirautenean. **Ezohiko** prozesua da, eta ezarritako hezkuntza-erantzuneko neurriak nahikoak izan ez direnean aktibatu behar da.

Ebaluazioa **testuinguruari** lotua izango da, eta diziplinarteko ikuspegi batekin eta inplikaturako profesionalen arteko lankidetzarekin egingo da.

Ikastetxeak **“Ebaluazio psikopedagogikoaren eskaera”** protokoloaren bidez formalizatuko du eskaera **W67** aplikazioaren bidez, eskaera-eredu eguneratua erabiliz.

Tutorea izango da prozesuaren erreferentea, irakasle-taldearekin eta orientazio-taldearekin koordinatuta, eta, hala dagokionean, taldean esku hartzen duten profesionalekin batera.

4.3.3. Ezohiko curriculum-neurriak eta laguntza-baliabideak

1 — Ezohiko curriculum-neurrien tipologia eta helburua

78/2024 Dekretuaren esparruan, ezohiko curriculum-neurriak HLBPa duten ikasleei ematen zaien erantzun intentsiboaren parte dira, neurri unibertsalak eta osagarriak aplikatu ondoren, hezkuntza ekitatiboa eta pertsonalizatua bermatzeko sarbidea, curriculuma edo denbora-antolaketa doitzea beharrezkoa denean ezartzen dira neurriak.

Honako hauek dira ezohiko curriculum-neurri nagusiak:

⇒ Curriculumaren banakako egokitzapen esanguratsuak

Egokitzapen hauetan curriculumeko **helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak aldatu edo ordeztzen dira**, laguntzekin ere curriculum arrunta garatu ezin duten ikasleentzat. Egokitzapenak Hezkuntza sailburuordearen 2018ko irailaren 3ko Jarraibideetan arautzen dira, 78/2024 Dekretuaren aurka egiten ez duen guztian.

Ez da neurri arrunta, ezta diagnostiko bidezko neurri automatikoa ere; ebaluazio psikopedagogikoa eta banakako plangintza behar ditu, eta aldizka berrikusi behar da.

⇒ Laguntza intentsiboko programen curriculum-proiektua

Proiektu honek **premia oso bizi eta jarraituak** dituzten ikasleentzako hezkuntza-erantzuna antolatzen du. Horretarako, egitura pedagogiko espezifiko, egonkorra eta laguntza indartuak behar dira ikastetxe arruntetan.

Kontua ez da ikasleak “bereiztea”, **antolaketa-baldintza egokiak sortzea** baizik, ikasleek eskola-esperientzia esanguratsua izan dezaten ikastetxeari, taldeari eta beren garapen-helburuei lotuta.

⇒ Curriculumaren zabaltzeko egokitzapenak (gaitasun handiak)

Egokitzapen-mota hau, konpetentzia-mailagatik edo ikasteko estiloagatik, hezkuntza-prozesuan **sakontasun, konplexutasun edo autonomia** handiagoa behar duten ikasleentzat da.

Handitzeko neurriek **motibazioari, interesari eta potentzialaren garapenari eustea ahalbidetzen dute**, eta ikaslearen ezaugarriekin bat datozen erronkak eskaintzen dituzte.

⇒ Eskolatzeko-aldia malgutzea

Etaparen bateko egonaldiaren denbora doitzea (luzatzea edo laburtzea), arrazoitutako hezkuntza-erabaki baten bidez eta jarraipenarekin, ikaslearen garapen-erritmoak eta beharrak errespetatzeko.

Ez da erabaki administratibo edo automatikoa; hezkuntza-oinarriak, akordioak eta jarraipena eskatzen ditu.

Neurri horiek dagokion ebaluazioan oinarritu behar dira, **JPPan** islatu eta **W67** aplikazioaren bidez tramitatu, bidezkoak diren txostenak eta oniritziak erantsi (orientazioa, inklusiorako laguntza-aholkularitza eta ikuskaritza).

2 — Izapidetzeko prozedura eta epeak

Ezohiko curriculum-neurri guztiak eta **Laguntza Intentsiboko Programen Curriculum Proiektua W67 aplikazioaren** bidez izapidetuko dira,

Hezkuntza Aniztasunerako eta Gizarteratzeko Zuzendaritzak ezarritako prozeduraren arabera.

Ikastetxeek honako hauek egin beharko dituzte:

- ⇒ Proposamenek irakasle-taldearen adostasuna eta orientazio-taldearen aholkularitza dutela bermatu.
- ⇒ Proposamena dagozkion dokumentu instituzio-naletan (IUPa, Aniztasunari Erantzuteko Plana, JPPa) jaso.
- ⇒ Familiei idatziz jakinarazi baimena ebatzi ondoren.

Jarraian, datozen **bi ikasturteetarako** balio duten **administrazio-epeak** zehazten dira, neurri bakoitzerako ezarritakoak:

Curriculum-egokitzapen esanguratsuak eta Laguntza Intentsiboko Programak

- Ikastetxeko zuzendaritzak dagozkion proposamenak bidaliko ditu urriaren 21a baino lehen.
- Inklusiorako laguntza-aholkularitzak azaroaren 11 baino lehen emango du bere txostena.
- Hezkuntza Ikuskaritzak azaroaren 26a baino lehen emango du ebazpena.
- Ebazpena abenduaren 9a baino lehen jakinaraziko da, eta ikastetxeak abenduaren 16a baino lehen jakinaraziko die familiei idatziz, ebazpenaren kopia erantsiz.

Curriculum zabaltzeko egokitzapenak (gaitasun handiak)

- Ikastetxeko zuzendaritzak dagozkion proposamenak bidaliko ditu urriaren 22a baino lehen.

- Inklusiorako laguntza-aholkularitzak azaroaren 11 baino lehen emango du bere txostena.
- Hezkuntza Ikuskaritzak azaroaren 26a baino lehen emango du ebazpena.
- Ebazpena abenduaren 9a baino lehen jakinaraziko da, eta ikastetxeak abenduaren 16a baino lehen jakinaraziko die familiei idatziz, ebazpenaren kopia erantsiz.

Eskolatze-aldia aurreratzea edo malgutzea

- Ikastetxeko zuzendaritzak maiatzaren 27a baino lehen izapidetuko du proposamena.
- Inklusiorako laguntza-aholkularitzak ekainaren 3a baino lehen emango du bere txostena.
- Hezkuntza Ikuskaritzak ekainaren 10a baino lehen emango du ebazpena.
- Lurraldeko izapidetzea ekainaren 17a baino lehen osatuko da.
- Aniztasunerako eta Gizarteratzeko Zuzendaritzak ekainaren 24a baino lehen jakinaraziko die ikastetxeei proposamena onartu den ala ez, ikastetxeek ekainaren 29a baino lehen ikaslearen legezko arduradunei jakinaraz diezaieten, ebazpenaren kopia erantsita.
- Ebazpena ekainaren 24a baino lehen jakinaraziko da, eta ikastetxeak ekainaren 29a baino lehen jakinaraziko die familiei idatziz, ebazpenaren kopia erantsiz.

Curriculumera sarbidea izateko beharrezko materialak (HPBa duten ikasleentzat)

- Inklusiorako laguntza-aholkularitzak ikastetxeak eskatutako materialak baloratuko ditu eta baliabide-proposamena apirilaren 8a baino lehen tramitatuko du.

- Materiala maileguan mantentzea ikastetxearen ardura izango da, eta baldintza onenetan itzultzeko eskatuko da (horretarako, konpromiso hori zehazten duen dokumentu bat beteko da). Curriculumean sartzeko beharrezkoak diren materialak, 180 eurotik beherakoak, ikastetxeak ordaindu beharko ditu.

Erdi Mailako eta Goi Mailako Lanbide Heziketako eskolatze-aldia malgutzeko eskabidea aurkezteko epeak

Desgaitasunari lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek prestakuntza-ziklo bateko moduluak banatu ahal izango dituzte,. Horiek egiteko eta haien ebaluaziora eta kalifikaziora aurkezteko, eskolatze arruntean aurreikusitakoaren bikoitza izango dute.

- Ikastetxeko zuzendaritzak, ikasturtea hasi baino lehen, Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-arduradunari eskolatzea malgutzeko proposamena izapidetuko dio, maiatzaren 27a baino lehen.

- Inklusiorako laguntza-aholkularitzak txostena emango du ekainaren 3a baino lehen.
- Hezkuntza Ikuskaritzak bere ebazpena bidaliko du ekainaren 10a baino lehen.
- Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-arduradunak ekainaren 20a baino lehen izapidetuko du dokumentazioa.
- Ebazpena ekainaren 24a baino lehen jakinaraziko da, eta ikastetxeak ekainaren 30a baino lehen jakinaraziko die familiei, ebazpenaren kopia erantsiz.

4.4.

Eskola inklusiboa,
bizikidetza,
hezkidetza eta
ongizate
sozioemozionala

—

Eskola inklusiboa ongizate sozioemozionalari, bizikidetza positiboari, hezkidetzari eta aniztasunari emandako erantzuna bermatzean oinarritzen da, ikasleen garapen integralaren zutabe gisa. Esparru horretan, Bizikasi ekimenak ikastetxea espazio seguru eta positibo bihurtzea bultzatzen du, bizikidetza positibo eta hezkidetzaillea helburu duen hezkuntzaren alde jazarpenaren edo beste edozein indarkeria-motaren aurrean zero tolerantzia izanik, bizikidetzan eta bizikidetzarako hezkuntza sustatuz. Ekimen hori **Bizikidetza Planean, Ikastetxearen Urteko Planean** eta **Tutoretza-Ekintza Planean** integratu behar da, haren webgunean eskuragarri dauden curriculum-material espezifikoak txertatu.

Datozen bi ikasturteetan, helburuak hauek izango dira:

BAT taldearen funtzionamendua finkatzea -

- BAT taldea bizikidetzaren kudeaketarako erreferentziazko egitura da. Taldea, gutxienez, honako hauek osatuko dute: zuzendariak edo ikasketaburuak, irakasle orientatzaile edo aholkulariak, hezkidetza-arduradunak eta **ongizate- eta babes-koordinatzaileak**, azken honek, gainera, **BAT taldearen koordinatzaile-lanak** egingo ditu.

- Ikastetxeko ordutegian, astean gutxienez bi saio gordeko dira, talde horretako kideak koordinatzeko.

Taldearen eginkizunetan sakontzea

Hezkuntza-komunitate osoari prestakuntza ematea, materialak zabaltzea eta prebentzio- eta bidelaguntza-jarduerak garatzea, bereziki ongizate emozionalari eta jokabide suizidari dagokienez.

4.4.1 Eskola-jazarpeneko egoera posibleen eta jokabide suizidaren kudeaketa

Ikastetxeetan eskola-jazarpeneko egoera posibleen kudeaketa errazteko, [jazarpenaren aurrean jarduteko protokoloa](#), ezarri da, esku-hartze azkar, seguru eta eraginkorrerako urrats argiekin eta Hezkuntza Sailak eskainitako materialekin eta aholkularitzarekin batera. Eskola-jazarpeneko protokoloen eranskinak HIKU plataformaren bitartez kudeatuko dira.

2022ko urrian argitaratutako [Hezkuntzaren Eremuan Jokabide Suizida Prebenitzeko, Esku Hartzeko eta Posbentzioko Estrategiaren](#) esparru kontzeptuala OMEn, UNESCOren eta Euskadin Suizidioa Prebenitzeko Estrategiaren gomendioetan oinarritzen da. Gomendio horiek osasun mentala bultzatzen duten eskolak sustatzen dituzte, eta honako hezkuntza-printzipio hauetan oinarritzen dira:

⇒ Gizarteratzea

⇒ Ikasle gisa zentzua sortzea eta itxaropena sustatzea

⇒ Ongizate pertsonala

⇒ Segurtasuna, konexioa eta komunikazioa: kalitatezko elkarrekintzak

Estrategia horren zati bat da hezkuntza-eremuan [jokabide suizidaren aurrean esku hartzeko eta ondoren jarduteko protokoloa](#), jokabide suizida duten ikasleak hautematen direnean edo haien berri izaten denean ikastetxeek egin beharreko urratsak zehazten dituen. Eskola-jazarpeneko protokoloen eranskinak HIKU plataformaren bitartez kudeatuko dira baita ere.

4.4.2. Hezkidetza

Ikastetxeek estereotiporik eta diskriminaziorik gabeko hezkuntza-eredua bultzatu behar dute, genero-berdintasuna eta indarkeria matxistaren prebentzioa bermatzeko. Konpromiso hori **ikastetxe bakoitzean hezkidetza-plan propioa** garatzean eta aplikatzean gauzatzen da, 2026an argitaratutako **Bizikidetza eta Hezkidetza Estrategian** definitutako printzipio eta helburuekin bat eginik. Estrategia honek indarkeriarik gabeko hezkidetza-eredu inklusibo baterantz garamatza, eta jarraipena ematen dio Euskal Hezkuntza Sistemarako II. Hezkidetza Planari, berdintasunaren eta tratu onaren bidean.

Horretarako, ikastetxeek honako hauek egin beharko dituzte:

- ⇒ **Hezkidetzako arduradun bat izendatuta izan**, BAT taldeko eta Eskola Kontseiluko kide izango dena.
- ⇒ Hezkidetza-plan bat diseinatu eta aplikatu, ikastetxearen aurretiazko diagnostiko batean oinarrituta eta hezkidetzaren hamar zutabeekin lerrokatuta.
- ⇒ **Genero-ikuspegia txertatu honako eremuetan:**
 - Tutoretza- eta orientazio-planetan
 - Hezkuntza- eta curriculum-materialaren hautaketan.
 - Eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarrietan
- ⇒ **Irakasleak eta hezkuntza-komunitatea prestatu.** Arduradun berriek hasierako prestakuntza-modulua egin behar dute (Hezkidetza I).
- ⇒ Hezkidetza-planaren garapena **urtero ebaluatu** eta emaitzak urteko memorian sartu.

Beharrezko baliabide guztiak (gidak, material didaktikoak, prestakuntzak, etab.) Hezkidetzagunean **daude eskuragarri.**

Ikastetxeetan emakumeen kontrako indarkeria egoera posibleak kudeatzeko, Emakumeen aurkako indarkeria egoeren aurrean jarduteko Protokoloa ezarri da. Protokolo horrek esku-hartzea arautzen du ikasle, langile edo senideren batek emakumeen kontrako indarkeria jasaten duenean, ikastetxe barruan zein kanpoan.

Era berean, irakasle transei laguntzeko ikastetxeek irakasle transei edo genero-jokaera ez-normatiboa duten ikasleei bidelaguntza emateko Protokoloa eskura dute, egoera bakoitzera egokitutako hezkuntza-ingurune seguru eta inklusiboa bermatzeko jarraibideak ezartzen dituen.

Bi protokoloen eranskinak Hezkuntza Ikuskaritzara eta Bizikidetza aholkularitzara bidali beharko dira posta elektronikoko honen bidez: bnbizikidetza.bizikasi@berritzeguneak.eus

4.4.3. Haurren eta nerabeen babes integrala

Haurren eta nerabeen babes integrala lehentasunezko printzipioa da hezkuntza-sisteman. Esparru horretan, ikastetxeek funtsezko rola betetzen dute arrisku- edo babesgabetasun-egoeren detekzio goiztiarrean, baita esku-hartze mekanismo egokiak aktibatzerakoan ere. Eskola-inguruneak, ikasleen bizitzan duen hurbiltasunagatik eta jarraitutasunagatik, adierazle posibleak erraz identifikatzen laguntzen du eta zerbitzu

eskudunekin koordinatutako neurriak hartzen ditu. Horregatik, ezinbestekoa da ikastetxeek [Haurren eta nerabeen babesgabetasun, tratatu txar, jazarpen eta sexu-abusu egoeren aurrean prebenitzeko eta jarduteko Protokoloaren](#), arabera jokatzeari, uneoro adingabearen interes gorena eta ongizatea bermatuz.

4.4.4. Hezkuntza-orientazioa

EAEn, maiatzaren 30eko 77/2023 Dekretuak, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak ezarri eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak, eta maiatzaren 30eko [76/2023 Dekretuak](#), Batxilergoko curriculumak ezarri eta EAEn ezartzen duenak, 19 artikuluan eta 25 artikuluan jasotzen dituzte, hurrenez hurren, hezkuntza-orientazioaren helburuak, horiek gauzatzeko ardura duten eragileak eta orientazio-prozesuak barne hartzen dituen jarduerak.

Dekretu horiek hezkuntza-orientazioa definitzen dute. Esparru horretan, Hezkuntza Orientazioa orientazio akademiko eta profesionalean, bizikidetzaren positiboaren garapenean eta aniztasunari eta hezkuntza-inklusioari emandako erantzunean oinarritzen da.

Orientazioaren eremuari behar duen garrantzia eta lekua emateko, [EAEko 2023-2026 HEZKUNTZA ORIENTAZIORAKO ESTRATEGIA](#) dugu, [Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren, Batxilergoaren eta Lanbide Heziketaren esparruan](#). Estrategia honen esparruan lau helburu formulatzen dira:

1 — EAEko ikastetxe guztietan irakasle orientatzaileen lana indartzea eta bateratzea eta koherentzia ematea.

2 — Orientazioaren esku-hartzearen eragina handitzea, ikasleak ikastetxean kokatuz, hezkuntzako profesionalekin lankidetzan.

3 — Ikasle guztien ahalik eta garapen handiena bermatzea, haien ezaugarriak eta testuinguru pertsonala kontuan hartuta.

4 — Hezkuntza-sistema bermatzea, genero-arrakalarik gabeko ibilbide akademikoak eta profesionalak aukeratzeko aldaketa-motor gisa, beste edozein motatako edo baldintzatako bereizkeriarik gabe

Orientazio Estrategia honen barruan, tutoretza-planek ezinbesteko garrantzia hartzen dute. Esparru horretan, eman beharreko aholkularitza- eta laguntza-lanetan, orientatzaileekin koordinatuta, tutoretza-planen arteko koherentzia eta horien ezarpena bermatuko dituzte ikastetxean landu beharreko ardatz nagusiak.

4.5. Eskola-eta ikaskuntza- denboraren antolaketa

4.5.1. Egutegia

Ikastetxeko Eskola Kontseiluari dagokio ikasleen ohiko eskolako egutegia eta ordutegia finkatzea, hezkuntza-etapa bakoitzeko arauak, ikastetxearen irekiera-denbora eta ikasleen ohiko eskola-ordutegitik kanpo egiten diren jarduerak errespetatuz.

Nolanahi ere, ohiko egutegiak eta ordutegiak Hezkuntza Politikarako sailburuordearen ebazpenaren arabera ezarri beharko dira. Ebazpen honek, arau osagarriak ematen ditu dagokion ikasturterako ikastetxe publikoen eskola-egutegia egiteko.

Onartutako egutegia eta ordutegia ezin izango dira ikasturtean zehar aldatu, dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak behar bezala baimendutako salbuespenezko arrazoiengatik izan ezik.

Ikastetxearen **ordutegia** ondorengo ikasturteetarako **aldatzeko**, Hezkuntzako Lurralde Ordez kariaren berariazko baimena beharko da, honako prozedura honen arabera:

⇒ Proposamena ikastetxeko zuzendaritzak egingo du, eta eskola-egutegiko araudian ezarritako baldintza guztiak bete beharko ditu.

⇒ Proposamena irakasleekin eta ikastetxeko gurasoekin kontsultatu beharko da, eta sektore horietako bakoitzean emandako botoen 2/3ko gehiengo kualifikatuz onartu beharko da, eta sektore bakoitzeko erroldaren %50eko parte-hartzearekin.

⇒ Proposamena ikastetxeko Eskola Kontseiluaren gehiengo osoz onartu beharko da.

Aurreko baldintzak bete ondoren, ikastetxeko zuzendaritzak aldaketa-eskaera tramitatuko du Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan, data hauetan: 2027ko urtarrilaren 15a baino lehen, 2027-2028 ikasturterako; eta 2028ko urtarrilaren 14a baino lehen, 2028-2029 ikasturterako. Lurralde Ordezkaritzak, egokitzen jotzen dituen txostenak bildu ondoren, aldaketa hori baimendu edo ukatuko du ikastetxeak aurrematrikulak egin baino lehen, ikastetxeak hurrengo ikasturterako ordutegi-aldaketaren berri eman diezaien eskola-komunitateko kide guztiei.

4.5.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen eskola-ordutegia

Ikasturterako ordutegiak egiterakoan, DBHrako [77/2023 Dekretuak](#) adierazitakoa hartu behar da kontuan.

4.5.3. Batxilergoko ikasleen ordutegia

Ordutegiak egiterakoan, Batxilergorako [76/2023 Dekretuan](#) adierazitakoa hartu behar da kontuan.

Gainera:

- ⇒ Batxilergoko ikasleen asteko ordutegia, egungo araubidean, ikastetxeak berak ezarriko du, indarrean dagoen araudian ezarritako gutxienekoak errespetatuz.
- ⇒ Erlijioa ikaslerik ez badago, ez da beharrezkoa izango Erkidegora bideratutako proiektuak egitea (nahiz eta ikastetxeak eskaini ahal izango duen, hala nahi izanez gero).

⇒ Batxilergoko hautazko ikasgaien eskaintza Sailak berak egindako proposamenarekin eta ikastetxeak berak egiten duen proposamenarekin osatuko da.

⇒ Hautazko ikasgaien eskaintzari dagokionez, hautazko ikasgai bat aukerako ikasgai gisa eskaintzen bada, ikastetxeko modalitateko ikasgaien ordu-karga bera izango du. Modalitateko ikasgai gisa duen talderik ez badago, modalitateko ikasgaiez bestelako ordu-karga batekin eman ahal izango da (gutxieneko ordutegiak errespetatuz).

4.5.4. Lanbide Heziketako ikasleen ordutegia

Erronketan oinarritutako ikaskuntza-metodologia berriak ezarri ez diren zikloetan, eskola-saio bakoitza 60 minutukoa izango da; Hala ere, ikasleekin zeharkako konpetentziak garatzearekin zerikusia duten beste proiektu batzuk egiten direnean, astean egun bat eduki ahal izango da gutxienez 55 minutuko 7 eskola-saio egiteko.

Erronketan oinarritutako ikaskuntza-metodologia berriak ezarri diren zikloetan, gutxienez 6 ordu eman beharko dira curriculum-konpetentziak garatzen, atsedenerako ezarritako gutxieneko denbora errespetatuz (30 minutu).

Araudi honen salbuespenak

Salbuespen gisa, dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkariek araudi honetan aldaketak egiteko baimena eman ahal izango du, baldin eta guztiz beharrezkoak badira koordinatzeko ikastetxean ematen diren mailetako ikasleen eskola-garraioko zerbitzuak, edo garraio- eta/edo jantoki-zerbitzu berberak partekatzen dituzten ikastetxeetakoak

4.5.5. Ikasleen eskolaratzea eta asistentzia

Ikasle guztien eskubidea eta betebeharra da eskolara joatea zein gaueko ikasketetan. Inolaz ere ezin da ezarri ikaslea matrikulatuta dagoen irakasgaietarako borondatezko laguntza.

- ⇒ Arrazoi batzuegatik edo besteengatik, egun jakin batzuetan ikasle kopuru txiki bat baino ez egoteak ez ditu ikastetxea eta irakasleak eskolak normaltasunez ematera salbuesten.
- ⇒ Familia edo legezko tutoreek egin beharko dute hutsegitearen justifikazioa dagokion tutorearen aurrean, eta ikasketa-buruak onartu beharko du. Faltaren berezko frogagiriak aurkeztea erabakitzen duten 18 urtetik gorako ikasleek edozein lan-harremanetan eska daitezkeen antzeko justifikazio-agiriak aurkeztu beharko dituzte.
- ⇒ DBHko ikasleei dagokienez, justifikatu gabeko hutsegiteak eskola-absentismotzat hartuko dira. Kasu horietan, ikastetxeek Hezkuntza Ikuskaritzak ikasturte hasieran jakinaraziko duen prozedura jarraituko dute. Nolanahi ere, ikastetxeek falta horien berri emango diote zonako ikuskaritzari hilaren 5a baino lehen, "Kalifikazioak eta hutsegiteak" aplikazioan sortutako txostenaren bidez.

Aurrez adierazitako puntuak kontuan hartuta, Eskola Kontseiluak ikastetxeko AJAn finkatu beharko ditu ikasleen hutsegiteak eta eragin ditzaketen neurri zuzentzaileak, EAEko unibertsitatez kanpoko

ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko [201/2008 Dekretuan](#) ezarritakoaren arabera (EHAA, 2008ko abenduaren 16koa).

AJAn xedatutakoaren arabera, familiei berehala jakinaraziko zaie. Erregelamendu horrek horri buruzko araurik zehazten ez badu, zuzendaritza-taldeak familiei jakinarazteko epeak eta modua ezarri beharko ditu, familiei buruzko informazio zehatza eta zuzena bermatzeko.

Irakasle guztiek kontrolatu behar dute ikasleak beren eskoletara joaten diren ala ez, eta tutoreari eman behar diote hutsegiteen berri, ikasleen hutsegiteen jarraipena egiteaz arduratzen baitira.

Aipatutako 201/2008 Dekretuan ezarritako artikuluen arabera bidezkoak diren neurri zuzentzaileak aplikatzea baztertu gabe, ikastetxeak onartutako etengabeko ebaluaziorako metodoak eta irizpideak aplikatu ezin zaizkien ikasleak etapa bakoitzari dagozkion deialdi ofizialetako azken proben bidez ebaluatu beharko dira.

Ikastetxeek, proba horien ezaugarriak ezarriko dituzte dagokion ikasgaiaren edo moduluaren izaeraren arabera, eta betiere indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

4.6. Ikasleen ebaluazioarekin zerikusia duten alderdiak

Jarraian zehazten den araudian, ikasleen ebaluazioa irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko funtsezko tresna, da eta bere izaera pedagogiko nabarmentzen da. Ikastetxe bakoitzak diseinatu eta planifikatu beharreko prozesua da, ikasleen lorpenak identifikatzera eta haien zailtasunak hautematera bideratua, prozesu objektiboa, ekitatiboa eta bikaintasun akademiko zein pertsonalaren bilaketara zuzendua bermatuz. Ebaluazioaren konpetentzia-ikuspegia azpimarratzen da, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren funtsezko alderdi gisa.

Modu honetan, ebaluazioa kudeatzerakoan, erreferenteak honako hauek dira:

- ⇒ [AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 22koa](#), Hezkuntza sailburuarena, Haur Hezkuntzako ebaluazioa eta Oinarrizko Hezkuntzan eta Batxilergoan ebaluazioa, sustapena eta titulazioa arautzen dituen, hala badagokio.
- ⇒ Ikasturte amaierako dokumentazio akademikoa. [Esteka](#) honetan Hezkuntza Ikuskaritzaren webgunean argitaratutako eta ikasturte bakoitzean eguneratutako jarraibideak daude.

Era berean, hezkuntza-laguntzako berariazko premiak (HLBP) dituzten ikasleei dagokienez,

aipatutako esparruan zehazten den araudiaren arabera, kontuan hartuko da ekainaren 18ko 78/2024 Dekretua, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleentzat hezkuntza-sistema inklusibo baten esparruan aniztasunari erantzuna ematen diona.

Esparru horretan, Sailak **EKHA** aplikazioaren erabilera bultzatzen jarraituko du, konpetentzietan oinarritutako ebaluazioan aurrera egiteko laguntza-tresna gisa. Tresna horren helburua da irakasleentzat ikasleen ikaskuntzari buruzko informazio garrantzitsua biltzea, kudeatzea eta horren jarraipena erraztea, bai eta ikuspegi integratuagoa, formatiboagoa eta konpetentzia-ereduarekin koherenteagoa lortzen laguntzea ere.

Ezarpena errazteko, 2025-2026 ikasturte amaieran eta 2026-2027 zein 2027-2028 ikasturteetan zehar, irakasleei zuzendutako aurkezpen- eta prestakuntza-ekintzak garatuko dira, ahalik eta ikastetxe gehienetara iristeko eta tresna hau ebaluazio-eraldaketarako prozesuan funtsezko bitarteko gisa zabaltzen jarraitzeko.

Irakasleak hezkuntza- aldaketaren eragile

5

IRAKASLEEN KONPETENTZIA-PROFILA [77/2023 DEKRETUAREN](#) 20. ARTIKULUAN ETA [76/2023 DEKRETUAREN](#) 24. ARTIKULUAN JASOTA DAGO. GAINERA, ATAL HONETARAKO, HONAKO HAUETAN AURREIKUSITAKOA HARTUKO DA KONTUAN: EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN TESTU BATEGINA; LOEREN 91. ARTIKULUA; ETA [ENPLEGATU PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAREN LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN](#) URRIAREN 30EKO 5/2015 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETUA (BEREZIKI FUNTZIONARIOEN ESKUBIDEEI ETA BETEBEHARREI, HUTSEGITEEI ETA ZEHAPENEI, KODE DEONTOLOGIKOARI ETA ABARRI DAGOKIENEZ), BAI ETA INDARREAN DAUDEN AKORDIOAK ETA [LAN-HITZARMENAK](#) ERE.

5.1.

Irakaskuntza- jardueraren antolamendua

Zuzendaritza-taldeari dagokio irakasle-taldeak antolatzea eta, ikasturte hasieran, irakasleak talde, maila eta irakasgaiari esleitzeko **irizpideak** ezartzea, **ikasleen beharretara** eta ikastetxearen **funtzionamendu egokira** bideratutako irizpide pedagogikoekin edo antolakuntzakoekin.

Prozesu horretan, zuzendaritzak irakasleen eta sailen edo arloen ekarpenak jasoko ditu ikastetxeko koordinazio-bideak erabilita; nolanahi ere, **azken erabakia** zuzendaritza-taldeari dagokio, bere lidergo pedagogiko eta antolakuntzako erabiliko du.

Ikasketaburuak esleitu ditzio irakasle bakoitzari ikasmailak, taldeak eta irakasgaiak, zuzendaritza-taldeak onartutako irizpideak aplikatuz eta irakasgaiak esleitzeari buruz **indarrean dagoen araudian** xedatutakoa errespetatuz (ikus hurrengo atala).

Era berean, zuzendaritza-taldeari dagokio **ordu-kredituaren** eta lotutako zereginen **banaketa** egitea, eta ordu mota bakoitza esleitu den **irizpide eta helburuetara** egokitzen dela bermatzea (curriculumak, antolaketa, berrikuntza, kudeaketa, hezkuntza-komplexutasuna, etab.). Antolaketa horrek kontzeptu bakoitzaren **izaera eta helburua** errespetatu beharko ditu, irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren hobekuntzan **eragina** izango duela bermatzeko eta orduak aurreikusitakoak ez diren beste helburu batzuetarako ez erabiltzeko.

Irakasle-jardueraren antolaketa eta eginkizunen zein arduren banaketak Hobekuntza-Estrategia Integralaren helburuekin bat etorri behar dute. Bereziki, funtsezkoa da honakoa:

- ⇒ Ikastetxeko **antolaketa-erabakien eta lehentasun pedagogikoen arteko koherentzia** bermatzea.
- ⇒ **Koordinazioko eta lidergo pedagogikoko eragileak** behar bezala aritzeko baldintzak ziurtatzea,
- ⇒ **IUPen jasotako hobekuntza-ekintzen** ezarpena erraztea, batez ere **barneko datuen eta kanpo ebaluazioen analitik** eratorritakoak.

Zereginak esleitu ondoren, horiek **nahitaez bete beharrekoak** izango dira. Hala ere, ikasturtean zehar, zuzendaritza-taldeak eginkizunen banaketa berrikusi eta egokitu ahal izango du, ikastetxearen edo ikasleen beharretan aldaketa esanguratsuak gertatzen direnean. Aldaketok **justifikazio pedagogikoarekin**, gardentasunez komunikatuta eta langileen eskubideak errespetatuz egin beharko dira.

5.2. Urteko lanaldia

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakasleen **urteko lanaldia 1.462 ordutakoa** da, EAEko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioa onartzen duen [abenduaren 30eko](#)

[252/2025 Dekretuaren 25. eta 26. artikuluetan](#) aurreikusitakoaren arabera. Lanaldia **irailaren 1etik uztailaren 31ra** bitartean garatzen da. Lanaldiaren **zenbaketa-egitura eta banaketa** hurrengo atalean zehazten dira.

5.2.1. Lanaldiaren zenbaketa eta egitura orokorra

Oro har, **asteko jarduna 30 ordukoa** da. Ordu-antolaketa dagokionez, bi multzo bereizten dira: ikastetxean **bertan bete beharreko asteko 23 ordu**, eta **ikastetxerako dedikazio zuzeneko asteko 7 ordu osagarri, hileroko zenbatuko direnak**.

Ikastetxean bertan betetzeko asteko 23 orduen banaketa:

A — Gehienez 17 irakastordu xede hauetarako:

⇒ Curriculumaren zuzeneko irakaskuntza.

⇒ Banakako edo taldeko tutoretzak.

⇒ Hezkuntza Sailak onartutako hezkuntza-errefortzua edo berariazko programak edota neurriak

⇒ He-Indartuz (Hezi+) neurria.

B — 2 ordu astean hezkuntza-arretarako:

Kategoria honetan honako hauek sartzen dira:

1 — Bigarren Hezkuntzako etapako eskola-ordutegiaren barruan ezarritako **jolasgaraiko zaintzari eta arretari** dagozkion saioak.

Arreta hori asteko ordu bateko zaintzatzen batuko da, baldin eta baldintza hauek betetzen badira:

- ⇒ Irakasleak berariaz agertu behar du asteko ordutegian jolasaldiko hezkuntza-arretaren arduradun gisa, eta bere ordutegian jasota egon behar du EED aplikazioan.
- ⇒ Arreta astean 30 minutuz eman behar da, gutxienez, atsedenaldi bakar batean, edo 15 minutuko bi atsedenaldi batuta.

Balio administratiboaz gain, **balio pedagogikoa duen hezkuntza-espazio** gisa ulertu behar da jolasgaraita. Funtsezko aukera da honetarako:

- ⇒ Autonomia, parte-hartzea eta bizikidetzaren positiboa sustatzea.
- ⇒ Ikasleen dinamika sozialak eta emozionalak behatzea eta horietan esku hartzea.
- ⇒ Bazterketa-, ondoez- edo jazarpen-egoerak goiz detektatzeko.
- ⇒ Jarduera ludikoak, kooperatiboak eta errespetuzkoak sustatzeko.

Izendatutako irakasleek **presentzia arretatsua eta aktiboa** izan behar dute, eta bitarteko izateko, pedagogikoki esku hartzeko eta ikasleen ongizatea zaintzeko prest egon behar dute.

Ikastetxe bakoitzak **jolasgarairako protokolo espezifiko** bat izan behar du, Ikastetxearen Urteko Planean jasota dagoena. Protokolo horrek honako hauek ezarriko ditu:

- ⇒ Jolasa antolatzearen espazioak eta denborak.
- ⇒ Arreta ematen dioten irakasleen erantzukizunak.

⇒ Bultzatuko diren dinamikak.

⇒ Behatzeko, prebenitzeko eta esku hartzeko mekanismoak.

Protokolo horrek bat etorri beharko du ikastetxearen hezkuntza-proiektuarekin eta eskola inklusiboaren printzipioekin.

2 — Eskola-ordutegiko **hutsuneak betetzeko** dagozkion saioak.

Hutsegiteak errazago kudeatzeko, ikastetxeak aldeztu aurretik **gutxieneko plangintza** bat antolatuko du (proposamenak, orientabideak eta jarraipenerako materialak), hezkuntza-jardueraren jarraitutasuna bermatzeko.

3 — Absentziak betetzeaz gain, **ordu hauek honako eginkizun erabili behar dira:**

- ⇒ Arreta aktiboa espazio komunetan: korridoreak, sarrerak, patioak edo ikasgelatik kanpo ikasleak egoten diren beste leku batzuk.
- ⇒ Berehalako prestasuna desagokitze- edo gatazka-egoeren aurrean: batez ere tentsio-uneetan, klase-aldaketetan edo unean uneko laguntza-premian.
- ⇒ Gertakari edo jarrera disruptiboak prebenitzea, egoera hori bideratzeko gai den presentzia hezitzaile baten bitartez.

Kontua ez da irakasleak kanpoko zaindari gisa aritzea, baizik eta ikasleen sozializazioa eta joan-etorrietako denbora eta espazioei arreta ematearen hezkuntza-komunitate bateko kide aktibo izatea. Helburua ez da soilik “ezer ez gertatzea” saihestea, baizik eta **ongizatea, autorregulazioa, bizikidetzaren positiboa eta eskola-ordutegiko denboren erabilera erakitzailea bultzatuko duten baldintzak sortzea.**

Era berean, **ikasketaburutzak irakasleen eguneroko txosten** bat egingo du, egunero, eta txosten hori Hezkuntzako Ikuskaritzarako egongo da beti eskuragarri. Bertan, gutxienez, honako datu hauek jasoko dira:

- ⇒ Irakasleen absentziak eta atzerapenak.
- ⇒ Ikastetxeko edozein gunetan ikusitako gorabeherak.
- ⇒ Gertatutako istripuak.
- ⇒ Dagokien hezkuntza-arreta bete duten irakasleen sinadurak.

C — 2 ordu astean familiei arreta emateko eta karguari dagozkion zereginetarako.

Ordu hauek, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakaskuntza-lanaren funtsezko piezatzat hartu behar dira, ez bakarrik tutoreentzat, baita klaustro osoarentzat ere, erantzukidetasunaren ikuspegitik.

Tutoretzadun irakasleen kasuan, ikasleekin taldean egitendentutoretzatik, bereiztendirentutoretza-lanak egiteko lirateke. Horien artean daude tutoretzarekin lotutako zereginak, tutoretza-koordinazioko bilerak, orientazio-jarduera espezifikoak eta abar.

Bi ordu hauek **ezin dira ulertu erabilgarritasun-tarte orokor gisa; planifikatuta, koordinatuta eta Orientazio eta Tutoretza-Ekintza Planarekin (OTEP)** zein Ikastetxearen Urteko Planarekin (IUP) lerratuta egon behar dute.

Bi ordu hauek, irakasle bakoitzaren rola eta erantzukidetasunaren arabera, honako hauetarako dira:

- ⇒ Familiekin aurrez planifikatutako elkarrizketak egiteko, ez soilik gorabeherari erantzuteko, baizik eta prebentziozko, erantzukidetasuneko eta proaktiboa den hezkuntza-bidelauntza baten parte gisa.

⇒ Ikasleekin banakako tutoretza-saioak garatzeko, helburu zehatzekin eta jarraipen sistematikoarekin.

⇒ Ikasleengan eragina duten egoera espezifikoetarako arreta koordinatzeko (zailtasun akademiko iraunkorrak, motibaziorik eza, jokabide disruptiboak, ondorez emozionala edo erabaki akademikoak hartzeko).

⇒ Tutoretza-koordinazioko bileretan parte hartzeko, orientazio-mintegiak antolatuta, ekintza komunak planifikatu eta ebaluatzeko.

⇒ Tutoreen kasuan, tutoretza-ekintzari lotutako dokumentazioa lantzeko: (jarraipen-txostenak, banakako erregistroak, Jarduera Plan Pertsonalizatuaren (JPP) proposamenak) eta hezkuntza-trantsizioetan aktiboki esku hartzeko, orientazio-taldearekin lankidetzan.

⇒ Irakasle-taldeari modu proaktiboan jakinarazteko ikasleei laguntzeko garrantzitsuak diren informazioak.

⇒ Orientazio eta Tutoretza-Ekintzarako Planaren (OTEP) eta Ikastetxeko Urteko Planaren (IUP) esparruan, zuzendaritzak, zehazten dituen zeregin guztietarako zerbitzuaren beharrak eta ikastetxearen plangintza kontuan hartuta.

Gainerako irakasleak:

Era berean, 2 ordu horiek aukera baliotsua dira **irakasle guztiek ikasleekin hezkuntza-harreman sakonagoa eta pertsonalizatuagoa** izan dezaten, beren ezagutza-arlotik bertatik. Kontua ez da bakarrik bileretara joatea edo noizbehinkako komunikazioa izatea, baizik eta zeregin aktiboa hartzea **banakako laguntzetan egitean eta banakako tutoretzetan**.

Ordu horien helburu posibleak honako hauek dira:

1. **Ikasleei banakako arreta eskaintzea irakasgaiaren esparruan,** zailtasun espezifikoak gainditzten edo funtsezko ikaskuntzak indartzen lagunduz.
2. **Beren irakasgaietan gaitasun handia duten ikasleak identifikatzea eta laguntzea,** adibidez, curriculumak aberasteko jarduerak garatuz (olinpiadetarako prestakuntza, erronka zientifikoak, idazketa sortzailea, etab.).
3. **Ikasleen ongizate emozionalean eta sozialean laguntzea,** bereziki irakasleek ondoezaren edo motibaziorik ezaren seinaleak hautematen dituzten egoeretan.
4. **Ohiko laguntza-neurriak proposatzea eta aplikatzen laguntzea,** ikuspegi inklusibotik eta ikasleen aurrerapena zuzenean behatuta.
5. **Ikastetxeko Urteko Planaren** (IUP) esparruan, zuzendaritzak, zerbitzuaren beharrak eta ikastetxearen plangintza kontuan hartuta, zehazten dituen zeregin guztiak.

Irakasle bakoitzaren espezialitateak sarrera pedagogiko giltzarria eskain dezake ikasleekin konektatzeko: irakasgai batekiko interesa, ondo planteatutako jarduera batez gozatzea, lorpenak aitortzea edo elkarrizketa zintzo eta errespetuzkoa izatea funtsezkoak izan daitezke garapen akademikorako eta pertsonalerako.

Ekintza horiek irakasle tutoreen eta **hezkuntza-orientazioko taldearen lanarekin koordinatuta egon behar dute**, eta ikastetxeko Orientazio Planean jaso behar dira. Horrela, ikasleei laguntza integrala emateko kultura partekatua finkatzen da, eta klaustro osoak zeregin aktiboa eta bereizia du kultura horretan.

20 ikasletik gorako DBHko taldekako tutoretza

Akordio Arautzailea aplikatuz, 20 ikasle baino gehiago dituzten DBHko taldeetan, **talde bakoitzeko bi tutore** egongo direla aurreikusten da, eta horrek esan nahi du **astean 4 ordu egongo direla tutoretza-arretan. Tutorekidetza** hori ez da zereginen bikoizketa gisa ulertu behar, baizik eta erantzukidetasun-estrategia gisa, honako hauek ahalbidetzen dituen:

- ⇒ Orientazio eta Tutoretza-Ekintzarako Plana elkarrekin planifikatzea eta ezartzea, bai eta hortik eratorritako zereginak gauzatzea ere.
- ⇒ Egoera konplexuen aurrean behatzeko eta erantzuteko gaitasuna handitzea.
- ⇒ Tutoreen presentzia indartzea jardunaldiaren eta ikasturtearen une garrantzitsuenetan.
- ⇒ Ikasleak erreferentziazko figura heldu batekin baino gehiagorekin lotu daitezen sustatzea.

Batxilergorako gako espezifikoak

Batxilergoaren kasuan, tutoretzak ikuspegi espezializatuagoa hartzen du, honako hauek ardatz hartuta:

- ⇒ **Erabaki akademikoak eta bokaziozkoak** hartzea, ibilbideei, unibertsitatera sartzeko probei, goi-mailako lanbide-heziketari edo beste aukera batzuei buruzko informazio argi eta eguneratuarekin.
- ⇒ **Karga akademikoaren jarraipena**, estresaren kudeaketa eta azken ebaluazioen aurreko prestakuntza emozionala.
- ⇒ **Laguntza emozionala etapa zail** batean, kanporesio eta itxaropen pertsonal handikoan.

- ⇒ **Antolaketa pertsonalari, ikasteko ohiturei eta autonomiari buruzko orientazioa**, etapari eta ondorengo igarobideari arrakastaz aurre egiteko funtsezko konpetentzia gisa.

Premia horiei tutoretza-plangintza bereizi batetik heldu behar zaie, hezkuntza-orientazioko taldearekin lankidetzat estuan.

D — Astean ordubete, saileko bileretarako edo koordinazio pedagogikorako.

Bilera horiek bat etorri behar dute ikastetxearen plangintza orokorrarekin, eta ebazpen honen [5.6. Sailak](#) atalean aurreikusitakoaren arabera antolatuta behar dira, zeina sail didaktikoen eta koordinazio-taldearen egiturari eta funtzionamenduari buruzkoa baita.

Hala ere, asteko ordu horrek irakaskuntzaren hobekuntzan benetako eragina izan dezan eta topaketa informal edo errepikakorretan gal ez dadin, **lan-espazio profesional egituratu** gisa ulertu behar da. Horretarako, honako hau gomendatzen da:

- ⇒ **Aldez aurretik prestatu** behar da, eta gainerrenda bat ezarri behar da, helburu argiekin eta beharrezko materialekin.
- ⇒ **Eraginkortasun-irizpideen arabera antolatzen da**, eta esku hartzeko denborak mugatuz, gai garrantzitsuei lehentasuna eman eta benetako iraupena landu beharreko gaietara egokitu.
- ⇒ Hartutako **erabakiak akta labur eta partekatuen bidez jasotzea**, arduradunak eta horiek gauzatzeko epeak zehaztuta.
- ⇒ **Aldez aurreko akordioen jarraipen eraginkorra egitea**, etengabeko hobekuntzako eta kontu-emate partekatuko kultura profesionala sortuz.

E — Ordubete astean etengabeko formaziorako.

Izaera kolektiboa du, **klaustroaren ordutegi komunean** egon behar du, eta nahitaez bete beharreko lanaldiaren parte da.

Ez da inola ere ulertu behar **aukerako ordu gisa edo beste zeregin batzuekin truka daitekeen ordu gisa**. **Ordu profesionala** da, irakaskuntza-garapenaren eta ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren hobekuntzaren zerbitzura.

Ordu hori da **partekatutako laneko formazio-komunerako gutxienekoa**, eta **ikastetxearen beraren helburu estrategikoekin** zein sistema osoaren aurrerapena gidatzen duen **Hobekuntza- Estrategia Integralean zehaztutako lehentasunekin** lerratuta egon behar du. Ikuspegi bikoitz horretatik, prestakuntza-orduak honakoetarako aukera ematen du

- ⇒ **Hobekuntza-helburuei** lotutako prestakuntzei heltzeko (ebaluazioa, inklusioa, digitalizazioa, bizikidetzat...).
- ⇒ **Barne-mintegiak**, ikasketa profesional partekatuko saioak edo praktiken berrikuspenera garatzeko.
- ⇒ Funtsezko dokumentuak aztertzeko eta aplikatzeko (indarreko araudia, plan instituzionalak, estrategia didaktikoak...).
- ⇒ **Irakaskuntza-identitate partekatua** eta **hausnarketa pedagogiko kolektiboa** indartzeko.
- ⇒ **Praktika-komunitateak** eta **antolaketa-kultura** hezitzailea **eraikitzeko**, baita ikastetxeen artean ere.

Zuzendaritza-taldeei dagokie hori betetzen dela bermatzea, irakasleen ordutegian esplizituki sartzea, ikastetxearen urteko planetik garapena planifikatzea eta hobekuntza profesionalerako eta antolakuntzarako tresna gisa duten balioa onartzea.

Ikastetxeari zuzenean eskaintzeko 7 ordu osagarrien edukia eta kudeaketa

Gainerako 7 orduetan, irakasleek Ikastetxearen Hezkuntza-garapenarekin lotutako lan profesionalak egingo dituzte. Ordu horiek irakasleen lanaldiaren parte dira, eta **Ikastetxearen Urteko Planaren (IUP)** esparruan planifikatu behar dira.

Besteak beste, jarduera hauek egingo dira:

Ikastetxea planifikatzeko eta antolatzeako dokumentuak eta tresnak

- ⇒ Ikastetxea planifikatzeko eta antolatzeako dokumentuak eta tresnak prestatzea eta eguneratzea.
- ⇒ Ikastetxearen proiektu instituzional edo estrategikoetan aktiboki parte hartzea.
- ⇒ Didaktika-sailen bilera osagarriak, programazio didaktikoak berrikusi eta egokitzeko, eta ebaluazio-eredua aztertu eta adosteko.
- ⇒ IUPen definitutako etengabeko prestakuntza-planak garatzea, barne-saioen, partekatutako jardunaldien edo prestakuntza-ekintzen bidez.
- ⇒ Taldeko irakasle-taldearen koordinazio-bilerak, ikasleei batera jarraipena egiteko, hezkuntza-neurriak egokitzeko, aurrerapenak ebaluatzeako eta informazio garrantzitsua partekatzeko.
- ⇒ Mailako irakasle tutoreen eta ikastetxeko orientazio-taldearen arteko bilerak, Tutoretza-Ekintza Plana berrikusteko, laguntza pertsonaleko jarduerak diseinatzeko eta ongizate emozionala eta ikasleen inklusioa zaintzeko neurriak hartzeko.
- ⇒ Kide anitzeko organoetan parte hartzea (klostroa, batzorde pedagogikoa, eskola-kontseilua, etab.).

⇒ Ebaluazio-bilerak, egitea, hiruhilekoak zein ohiz kanpokoak apartekoak.

⇒ Beste jarduera osagarri eta eskolaz kanpoko batzuk.

Ikastetxeari zuzenean eskaintako denbora horren barruan, **zuzendaritzak irakasle guztiak aldi berean egoteko tarteak** ezarri ahal izango ditu, klostroaren baterako presentzia eskatzen duten koordinazio-lanak egiteko. Taldekako saio horiek astean behin edo hilean behin egin ahal izango dira, eta ikasturtearen hasieran aurreikusita egon beharko dute, IUPen sartuta.

7 ordu horien erabilera zehatza planifikatzea ikastetxeko zuzendaritzaren ardura izango da, eta Ikastetxearen Urteko Planaren erregistratuta geratu beharko du, eta horiek betetzen direla eta ikastetxearen hobekuntza-helburuekin koherenteak direla bermatuko du.

Ikastetxean zuzenean egon behar ez duten urteko orduen edukia eta kudeaketa

Urteko 1.462 orduak osatu arteko gainerako lanaldia ikastetxean **nahitaez egon beharrik eskatzen ez duten** lanbide-zereginen bidez betetzen da. Nolanahi ere, zeregin horiek irakasleen lan-denboraren parte dira, eta bete beharrekoak dira.

Nahitaez ikastetxean bertan bete behar ez diren orduak: $1.462 \text{ h} - (874 \text{ h} + 266 \text{ h}) = \mathbf{322 \text{ ordu.}}$

Ordu horiek, besteak beste, jarduera hauetarako erabili ahal izango dira:

- ⇒ Prestakuntza indibiduala edo instituzionala.
- ⇒ Programazioaren esparruan material didaktikoak lantzea eta egokitzea.
- ⇒ Lanak, probak... eta abar, zuzentzea..
- ⇒ Bestelakoak

Zeregin horiek **Ikastetxearen Urteko Planean (IUP)** aurreikusita egon behar dute, eta, hala badagokio, zuzendaritza-taldeak planifikatuta.

Bestalde, karrerako irakasle funtzionarioek eta kontratua indarrean duten bitarteko langileek administrazioarentzat prest egon beharko dute **uztailean**, eta honako jarduera hauetarako deialdia egin ahal izango zaie:

- ⇒ Ikastetxeak edo administrazioak antolatutako edo aitortutako prestakuntza.
- ⇒ Matrikulazio-prozesuan laguntzea (irekita jarraitzen badu).
- ⇒ Hautaketa-epaimahaietan parte hartzea.
- ⇒ Ikastetxeko barne-bilerak.
- ⇒ Hurrengo ikasturtea prestatzeko eta antolatzeko lanak, IUPen ezarritakoaren arabera.

Jarduera horiek guztiak uztailearen **15a baino lehen zehaztu eta jakinarazi** beharko dira, epaimahaietan parte hartzeko kasuetan izan ezik, kasu horietan berriazko ebazpenen mende gera baitaiteke deialdia.

Irakasleen urteko lanaldia zorrotz betetzea ez da betebehar administratiboa soilik, hezkuntza-zereginarekiko konpromiso etiko eta profesionalaren adierazpen zehatza baizik. Osatzen duten ordutarte bakoitzak (zuzeneko irakaskuntza, tutoretza, koordinazioa, familientzako arreta edo etengabeko prestakuntza) ikasleen eta ikastetxeko hezkuntza-proiektuaren benetako beharrari erantzuten dio.

Zuzendaritza-taldearen zuzeneko erantzukizuna da lanaldia antolatzea eta benetan betetzea, plangintza argia, bidezko banaketa eta garapen-baldintza egokiak ziurtatuz. Baina, aldi berean, klastro osoaren erantzukizun partekatua da, eta lanaldia esparru gisa hartu behar du, lan kolektiboa arautu ez ezik, eutsi eta duindu ere egiten baitu.

Inklusioarekin, ekitatearekin eta etengabeko hobekuntzarekin konprometitutako ikastetxe batean, lanaldia betetzea ezin da kanpoko inposaketa gisa bizi, proiektu komun bateko kide izatearen adierazpen gisa baizik. Ordu bakoitzak helburu bati erantzuten dionean, bilerak zentzuz prestatzen direnean, tutoretzak konpromisoz gauzatzen direnean eta prestakuntza benetako hobekuntza bihurtzen denean, irakasleen lanaldia minutuen batuketa izateari uzten dio eta balio eraldatzailea duen hezkuntza-denbora bihurtzen da.

